


# ttiipi-ttapa

228. zenbakia • 1998ko apirilak 23 • XVII. urtea

## BERTIZ Esku-hartu edo bere gisa berritzen utzi

Nafarroako  
Gobernuko  
ordezkariak hainbat  
talde ekologista eta  
teknikarirekin bildu  
dira Bertizko  
jauregian, basoaren  
egoerari buruz  
erabakidatzeko.

4



Elkarrizketa:

### Ander OLAIZOLA

«1.200 argazki atereak ditut Alemaniako Oihan Beltzean» dio abenturazale goizueta honenek. 24 urte bete berriak ditu eta dagoeneko Alaska, Holanda eta munduko hainbat txoko ezagutu ditu. Uda honetan Patagonian hiru hilabete pasatzeko asmotan omen dabil. «Bizitzeko beti hor egonen da Euskal Herria».

3

### 6 Iritzia: Liburuaren Eguna

Irakurketa ohituren gaineko irakasle, idazle eta liburuzain baten iritziak bildu ditugu.

### 27 Kultura: Nafarroako Bertsolari txapelketa

### 28 Kirola: Guratz-Mendi txirrindulari afizionatu talde berria

Apirilaren 2an egin zuten aurkezpena Basakabi hotelean. Jon Sanzberro etxalartarra da eskualdeko ordezkari bakarra.

TTIPI TXARTELA: Erosi zeurea eta erabili!





# BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

## Jakinarazten da:

1998ko lehen urterdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratu behar direla, segidan seinalatzen den bezalaxe:

## Ordaintzeko modua:

### Ordainketak banketxeetan helbideratu ez dituztenek:

Abisuan agertzen den kontura ordainketa eginez edozein banketxetan, abisua hirukoiztua aurkeztuz.

### Ordainketak banketxetan helbideratuak dituztenei:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

## Ordaintzeko epea:

- 1998ko maiatzaren 31n bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea ekainaren 30a arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izango da.
- Aipatutako epea pasa ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20 errekaruarekin kobratuko da.

*Bortzirieta, 1998ko apirilaren 1ean*

Presidentea  
Miguel M<sup>º</sup> Irigoien Sanzberro

## 1998. URTEKO TASAK

### ERABILTZAILAEN eta TASEN MAILAK

Zentsatutako etxebizitza guztiak, bertan norbait era iraunkorrean bizi ala ez: 7.090 pezeta.

Zaborrontzira 200 metrotik 500 metrora dauden baserriak: 6.030 pezeta.

Zaborrontzira 500 metrotik gora dauden baserriak: 4.960 pezeta.

**1. Merkataritza eta zerbitzuak.** Elikagaien eta elektragailuen sektorekoak ez direnak: mertzeriak, drogeriak, burdindegia, okindegiak, ileapaindegia, lan bulegoak: 7.090 pezeta.

**2. Merkataritza.** Elikagai dendak (harategiak, arraindegia, janari dendak), elektragailu dendak eta farmaziak: 14.130 pezeta.

**3. Merkataritza.** Autozerbitzuak: 21.210 pezeta.

**1. Ostalua.** Noizbehinka irekitzen diren ostalua eta biltokiak eta jarrarian irekita egoten diren bertze batzuk ere, 30 m<sup>2</sup>ko edo gutxiagoko azalera dutenak: 14.130 pezeta.

**2. Ostalua.** 30 m<sup>2</sup> baino azalera handiagoko ostalua eta janari-denda daukaten ostalua: 28.270 pezeta.

**3. Ostalua.** Pub eta diskotekak: 35.330 pezeta.

**1. Jatetxea.** Modu iraunkorrean irekiak dauden elkarte gastronomikoak, eta borts mahai edo gutxiago dituzten jatetxeak: 35.330 pezeta.

**2. Jatetxea.** Borts mahai baino gehiago dituzten jatetxeak: 63.600 pezeta.

**1. Hostala.** Hamar logela edo gutxiagokoak: 49.450 pezeta.

**2. Hostala.** Hamar logela baino gehiagokoak: 70.660 pezeta.

**Merkataritzako saltokiak,** jate-terik gabekoak: 70.660 pezeta.

**Merkataritzako saltokiak,** jate-txedunak: 105.990 pezeta.

**Lantegiak,** lau langile bitarte: 7.090 pezeta.

**Lantegiak,** 5-10 langile bitarte: 14.130 pezeta.

**Lantegiak,** 11-30 langile bitarte: 35.330 pezeta.

**Lantegiak,** 31-60 langile bitarte: 70.660 pezeta.

**Lantegiak,** 60 langile baino gehiagorekin: 105.990 pezeta.

Zuzenean zabortegira botatzea: 235 pezeta metro kubikoa.

## DATUAK.....

❖ 24 urte bete berriak dituen goizuetar honek diapositiba emanaldia eginen du larunbat honetan bere sorterrian.

❖ Oihan Beltzean barrena hilbeltzaren erditik otsailaren bukaerara ibili zen. Lehenetik Alaskan egin zuen gisako ibilaldia.

❖ Bere asmoa, halere, Marokora joatea zen, baina Madrilen autobusa betea topatu zuen. Etxera itzuli beharrean, Alemaniako bi-dea hartu zuen.

❖ Bi anai gazteak pilotari profesionalak baditu ere, berak ez du horrelako afiziorik. «Ospitalean nerekin seaskaz nahasi izanen zirela esaten dik attak» dio.

✎ **Ander OLAIZOLA** Goizuetako ibiltaria eta argazkilaria

## "1.200 argazki atereak ditut Alemaniako Oihan Beltzean"

### NOLAKOA IZAN DA OIHAN BELTZEKO ESPERIENTZIA?

Arrunt ona. Bakarrak ibili naiz. Hanburgotik beheiti trenean joanda. Gero, auto-stopean mugitzen nintzen, herri inguruetan kanping edo mendian lo eginez. Bakarren batek bere etxean lo egitea ere utzi zidan eta jendearekin harremana arrunt ona izan zen. Nik alemanez deus ere ez eta ingelesez gutxi, baina nola edo hala entenditzen ginen.

### ETA LARUNBATEKO EMANALDIAN ZER ERAKUTSIKO DUK?


1.200 argazki atera nituen eta larunbateko emanaldirako 400 bat diapositiba aukeratu ditut. Musika pixko bat sartzen diot eta ikusten dena esplikatzan dut.

### LEHENIK ALASKAN ERE IBILIA HAIZ. ZEIN IZAN DUK LEKURIK POLITENA HIRETZAT?

Holandan ere ibili nintzen, bidai labur batean. Politena, halere, Alaska izan da. Mutiko txikitatik nuen ilusioa zen. Natura aldetik paraje zoragarriak dira eta hango jendeak ere arrunt ongi hartzen zaitu, itxurari begiratu gabe afaltzera gonbidatzen zaitu, lotarako ohea utzi...

### NOLA HASI HINTZEN HONELAKO BIDAIAK EGITEN?

Herriko mendietan



«Uda honetan hiru hilabeterako Patagoniara joateko asmoa daukat»

oinez ibiltzea ikaragarri gustatzen zait txikitatik, animaliak ere bai... gero beste lekuak eta jendeak ezagutzeko gogoia etorri zen eta argazkizetasuna ere piztu zait. Beraz, bi afizio horiek elkartzeko modu bat da.

### DIRUA ERE NOLAPAIT LORTU BEHARKO DUK, EZDA?

Alemaniakoa, adibi-

dez, Alaskako argazkiekin lortutakoarekin ordaindu dut. Diapositiba emanaldiak eginez, aldirietara bidaliz, lan eginez... Orain, bidairaldizkarietara serioxe-ago hasi nahi dut bidaltzen, *Altair*, *Rutas del Mundo* eta honelakoetara. Eramaten dudana bizimodua ez da batere garestia, gainera.

### ETORKIZUNERA BEGIRA BESTE BIDAIRIK BADUK BURUTAN?

Bai, uda honetan bertan hiru hilabeterako Patagoniara joateko asmoa diat. Azkenean igual al-

datuko dut, baina norapaitera joanen naiz. Han hizkuntzarekin ez dut arazorik izanen.

### 'BIHOTZAK DIO, ZOAZ EUSKAL HERRIRA' ESATEN DIK KANTUAK. HONELAKORIK SENTITZEN DUK HOR BARNAN IBILTZEN HAIZENEA?

Noski, bizitzeko beti hor egonen da Euskal Herria. Orain, urte osoa hemen erabat lanean eman, asteburuetan juerga egin eta hori ez dut gustokoa. Atera beharra somatzen dut, leku eta jende berriak ezagutu...

► *«Urte osoa hemen erabat lanean eman, asteburuetan juerga egin eta hori ez dut gustokoa. Atera beharra somatzen dut, leku berriak ezagutu.»*

TESTUA:  
AITOR AROZENA  
ARGAZKIA:  
ESTEBAN AROZENA



## BERTIZKO OIHANA

# Esku-hartu edo bere gisa berritzen utzi?

**Bertizko oihanaren gainean luze eta zabal eztabaidatzeko aukera izan dute egunotan hainbat teknikari, talde ekologista eta Gobernuko ordezkariak. Oihanaren etorkizuna arriskuan ez badago ere, denek onartu dute nolabaiteko osasun arazoak badituela. Batzuek basoari bere gisa berritzen utzi behar zaiola diote, eta bertzeen ustez, ordea, gizakiaren laguntzarekin puskaz abudoago sendatuko litzateke oihana. Beti bezala, Nafarroako Gobernuak du azken hitza.**

TESTUA: ASIER GOGORZA ARGAZKIAK: KARMELE TOLOSA

# m

hainbat lagun bildu dira bi egun horietan jaurrean, basoaren egoera bertatik bertara ezagutu eta etorkizunean hartu beharreko erabakiei buruz hausnarketa egiteko. Azken boladan, izan ere, solas aunitz egin da Bertizko oihanari buruz. Joan den otsailaren 7an piztu zen argi gorria, Nafarroako Gobernuak Bertizeko zati haundi bat hilzorian zegoela baieztatu zuenean. Hori ekiditeko bide bakarra basoaren %10-

artxoaren 31 eta apirilaren 1a eztabaida egunak izan dira Bertizen. Oihangintzan adituak diren

ean arbol mozketa egitea omen zen. Adierazpen harrigarri horiek Antonio Garcia eta Santiago Gonzalez katedradun madrildarrek landu ikerketan oinarritzen ziren.

Ikerketa polemiko horretan agerienez, basoko biodibertsitatea laster bizian galtzen ari da. Urte aunitzez haritz mozketa selektiboak egin dira, eta pagoak tokia irabazi du pittaka-pittaka. Gainera, pagadia gero eta gehiago ixten ari da, eta zenbait gereziondo, gaztainondo eta zumar arriskuan daude. Duela bi urte izandako haize-boladek ere arbol erortze haundiak eragin zituzten Bertizen. Guzti hori kontuan hartuta, 20 urteko epe ba-

tean basoaren zati zabal bat deseginen zela ondorioztatu zuten. Gerora, ordea, beren txostenetik atera diren ondorioak xamurtu nahi izan dituzte bi adituek. «Ez da egia basoan esku-hartzen ez bada hil egingen denik.

*Deus ere egiten ez bada, heldu den belaunaldiak oihan desberdin batekin ohitu beharko du».*

### Basoa ez dago hiltzerian

Erranak erran, oihanaren iraupena ez dago arriskuan. Horretan ados daude jaurerrian bildu diren aditu guziak. Dena den, eztabaida bertze bat

- Bertiz bere gisa**
- berriztatu orduko**
- denbora luzea**
- joanen da, 400-450**
- bat urte, eta**
- esku-hartzearen**
- bitartez mendeak**
- hamarkada**
- bihurtuko omen dira.**

izan da. Hemen-dik aurrera basoari bere bidea segitzen utzi behar zaion edo prozesu naturala arintzeko gizakiaren laguntza behar duen, hain zuzen ere. Lehen irtenbidearen aldekoek basoaren eraberritzeko ahalmenean si-

nisten dute, eta esku-hartzea prozesu hori moztea litzatekela uste dute. Jardunaldietan parte hartu duten hainbat teknikariren erantziz, ordea, Bertiz bere gisa berriztatu orduko denbora luzea joanen da, 400-450 bat urte, eta esku-hartzearen bitartez mendeak hamarkada bihurtuko omen dira.

Basoari bisita egin ondoren, adituek zenbait fenomeno kezka-garri antzeman dituzte bertan. Pago eta haritzek osatzen duten eremuetan zenbait arbol mota eskasten ari dira, gaztainondoak eta haritz kandudunak batez ere. Pagoek basoan hartu duten indarra litzateke, adituen ustez, egoera horren erruduna. Bertzalde, hai-zeak lurrera botatako arbolak ateratzea akatsa izandu

dela eta hainbat mendeaz oihanak jasan duen ustiapen bortitzaren kalteak ezagun direla nabarmendu dute.

### Udazkena bitartean esku-hartzerik ez

Jardunaldiak akautu ondoren, Nafarroako Gobernuaren ardurapean gelditu da Bertizen egin behar edo egin behar ez dena. Iduri duenez, Gobernu esku-hartzearen aldekoa da printzipioz, beti ere, 1993ko Ordenazio Planean oinarrituz, hau da, basoaren %10ean mozketak egitea. Dena den, ko-

puru hori murriztu eta egokitzeko prest azaldu dira Ingu-rugiro Departamentuko ordezkariak.

Haritz multzo zaharrena dagoen tokian hasiko lirateke esku-hartzeak. Kimu indartsuenaren inguruan hutsuneak sortzea da hasierako asmoa, erortzen diren ezkurretatik arbolak berriak sor daitezela. Zenbait tokitan behar bezainbertze argi sartzen ez dela eta arazoak dituzte landare gazteek goiti egiteko, eta hor ere hutsuneak egingen dituzte seguras-ki ere. ■

✎ **Ignacio ELORRIETA** *Natura Zaintzeko Zerbitzuko Zuzend.*


## “Baso hau dagoen bezalaxe utzi nahi genieke gure seme eta ilobei”

✕ *Ze balorazio egiten duzue jardunaldien inguruan?*

► Nik Bertizko jardunaldien balorazio positiboa egiten dut. Bertizko egoerari buruzko eztabaida izan zen nagusi, eta edozein esku-hartzeari buruzko ‘konserbazionisten’ bel-durrak edo kezkek agertu ziren mahai gainera. Hori etxek aditza zen Nafarroako Gobernuaren nahia, Bertizen egoerarekin arras sentsibilizatuak dagoen gizarte sektore horren argumentuak jasotzea, alegia. Nere ustez, gai garrantzitsuetan egin beharreko bileren eredu izan zen.

✕ *Planteamenduetan, hainbertzeko alde dago kontserbazionista eta interbentzionistean artean?*

► Bi multzo horiek bereiztu beharrean, nik uste dut denok garelako kontserbazionistak, eta helburuak berdinak ditugu funtsean. Basoa nola kontserbatu behar den, ordea, eritzi desberdinak ditugu. Alde batetik, kontserbatzeko modurik hoberena batere ez ukitzea dela pentsatzen dutenak daude, naturak agindu dezala zer egin. Bertzetik, ondorengoa planteatzen dugunak: baso hau dagoen bezalaxe gure seme-alaba eta ilobei utzi nahi genieke, eta ez dugu horretarako 300 edo 400 urte esperatu nahi. Gure ustez gaur egungo Bertiz kontserbatzeko




esku-hartu beharra dago, naturak datozen 20-30 urteetan ustez desegin behar duena moldatzeko.

✕ *Ingu-rugiro Departamentuak ze punturaino izanen ditu kontuan Bertizen egun horietan eztabaidatutakoak?*

► Beti hartuko ditugu kontuan. Nere ustez, bi jarrerak bateragarriak dira gaur egun. Kontserbazionistek, basoari bere gisa berri-tzen uztea eta etengabe aztertzea proposatzen dute. Ordenazio Planak, berri-z, zera dio: gehienez ere 10 arboletik 1 moztea. Bertizko basoaren %90ak berezko bilakaera izanen luke, hortaz, esku-hartze plan gogorrenari jarraituz gero. Hemen-dik aitzinera eztabaidatu behar dena portzentaia horri kasu egin behar diogun edo oraindik guttiago, %0,3 edo 0,5eko arbolak mozketak egin behar diren.

## Datu historikoak

Bertizko oihanak 2.040 hektareako azalera du. XIX. mendera arte Bertiz familiaren eskuetan egon zen, gurasoetatik semeetara pasatuz hainbat belaunalditan. Gero, zenbait eskualdaketaren ondotik, Pedro Zigak erosi zuen mende hondarrean. Berak erai-kiak dira lorategia eta Aizkolegiko jaurregia. 1949. urtean Diputazioari eman zion Zigak Bertizko jabetza, baina baldintza zorrotzak jarri-z. Hori etako bat, parkea zegoen bezala mantentzea. 1984tik jendeari idekia dago, parke naturala izendatu zutelakoz.



Adin berdintsuko pago pilaketa ikaragarria dago oihaneko zenbait lekutan.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 6.800 ALE

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa: 63 11 88  
Faxa: 63 12 91  
**Internet:**  
<http://www.jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa>  
**e-mail:**  
ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com

**zuzendaria:** Aitor Arozena. **Puzitate:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Iriberri. **Administrazioa:** Amaia Irujo. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Bitto Apezetxea. **Berriemaileak:** Joseba Arozena, Esteban Arozena, Mari Saizar, Ainhoa Muberra, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Otxandorena, Jaione Arozena, Alba Fernandez, Mendiburu, Joseba Igarbide, Franc Dolosor, Margari Arozena, Koro Irazoki, Mixel Gendaiain, Jacqueline, Elixabet Arozena, Garbiñe Maiz, Oskar Arozena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Asier Gogorza. **laboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Txema Aldabe, Mikel Bezueta, Joxe Javier Etxeberria... **primategia:** Gertu. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunik. **akunde Laguntzaileak:** Bermeo, Leiza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Arako udalak, Bortzirietako Euzko Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkar...

## GAURKOTASUNEN GAIA

### Apirilak 23, Liburuaren Nazioarteko Eguna

#### Horrelako egunek duten zentzua komertzial hutsa da



Eduardo GIL BERA  
Narbarte. Idazlea

Horrelako egunek duten zentzua komertzial hutsa da, alde batetik, hori aski garbia da. Hor badira portzentai batzuk liburu saltzailek kontutan hartzekoak. Liburu saltzen den materiala den neurrian, ordea, ez da mespretxatzeko gauza ere arlo ekonomikoa. Bertzetikan itxura zaintzeko ere erabiltzen dira horrelako egunak, erakundeek beren burua xuritzeko eta dela ministroak edo dela kontseilariak sermoiren bat edo bertze botatzeko ere erabiltzen dute. Nik ez diot bertze zentzurik hartzen. Liburuari berari eta idazle ofizioari, bereziki, ez dio onura handirik ekartzen.

Irakurzaletasunari dagokionez, gure zonaldean beti bezain gutti irakurtzen da gaur egun eta beti bezala arras liburu gutti erosten da. Nik betidanik ikusi dut egunkaria irakurtzeko etxe aunitzetan dagoen ohitura, bainan bertzela arras gutti irakurtzen da, beti bezala.

Hala ere, nahiz eta Interneten garaian gauden, nik uste dut liburuak iraunen duela euskarri gisa, diferenteak dira, baina elkarreri ez diote kompetentziarik egiten.

#### Hurrengo belaunaldian, beharbada, ohikoagoa izanen da irakurtzea



Jose Luis HUARTE  
Leitzoko liburutzailea

Irakurtzea osotara sartu ez den ohitura bat da oraindik. Nik uste horrelako egunen bitartez propaganda egin behar dela nahitanahez. Komunikabideetan, TTIPI-TTAPAN adibidez, irakurtzearen garrantzia eta liburutegien onuraz horrelako egunetan bakarrik gogoratzen gara-eta.

Orain arte ez da irakurtzeko ohitura handirik izandu hemen, baina hurrengo belaunaldian, beharbada, ohikoagoa izanen da irakurtzea. Eta irakurtzea ohitura bat den bezalaxe, liburutegia erabiltzea ere halaxe da. Gainera, edozein asetzeko moduko eskaintza zabala dago eskualdeko liburutegietan. Ez bakarrik irakurtzera, jendea informazio bila ere etortzen da tarteak, boletinen ofiziala ikustera, hotel edo mendietako gidak...

Bertzalde, oraindik jende askok uste du, gehienbat adinekoek, liburutegia eskolarekin lotua dagoela. Neri behin baino gehiagotan esaten didate, "zer bazoaz eskolara?", eta nik ez dut inoiz eskolan lanik egin...

Duela hogeitun urte baino jende gehiago etortzen da liburutegietara... baina oraindik ez da tabernara joatea bezain ohikoa.

#### Momentu lasaietan telebista itzali eta irakurtzen hastea inportantea da



Mari Jose ARREGI  
Bera. Irakaslea.

Nik 8-9 urteko haurrei ematen diet eskola, bigarren ziklokoei, eta adin horretan irakurketa hagitz gauza inportantea da. Nik beti erraten diet gurasoei 3. mailako ikasleek etxean egin behar duten lan bakarra irakurtzea dela. Egunero-egunero pixko bat irakurtzea beharrezkoa da. Gurasoen ohiturak ere garrantzitsuak dira horretarako, familiar giro egokia izateak aunitz laguntzen baitu. Momentu lasaietan telebista itzali eta irakurtzen hastea oso inportantea da.

Ikasle gehienek oso ongi hartzen dute irakurketa, nahiz eta batzuei gehixeago kostatu. Horiei pixko bat lagundu behar izaten zaie. Ipuinak, adibidez, denei gustatzen zaizkie.

Nik pentsatzen dut gero eta gehiago irakurtzen dela. Eskolatik aterita, bakoitzak interesatzen zaiona irakurtzen du. Gaur egun, gainera, liburu oso politak badira euskaraz, aurrerapen izugarria eman da zentzu horretan.

Haurrentzako libururen bat gomendatzekotan, Atxagaren "Xola eta basurdea" aipatuko nuke. "Perkatx" saileko ipuinak ere oso politak dira.

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

#### LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9tatik 13tara eta 16etatik 20tara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 63 70 50

#### BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoak: 133328•133346. Faxa: 133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopanak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Egunkaria, 98ko apirilaren 17a

«Osasun publikoak herritar guztiei eman behar die zerbitzua, guztiak joaten baikara behin eta berriz anbulatorio eta ospitaleetara eta, beraz, euskararen normalizazioa udal eta eskualde euskaldunetan erabat lehentasunezkoa da».

Mikel ILLARREGI  
UEMAko lehendakaria  
Egunkaria 98-VI-17

◆ Zein duzu dantzarik gustokoena?

❖ Fandangoa.

◆ Biak probatu ondoren, zer nahiago duzu, irakasle edo ikasle?

❖ Irakasle.

◆ Astebururako planik hobereena?

❖ Denetarik, parranda pixkot eta mendia bertze pixkot.

◆ Ligatzeko bestarik aproposena?

❖ Iñauteriak.

◆ Nolakoa behar luke nobio perfektuak?

❖ Ez dago pertsona perfekturik baina, jatorra, zintzoa eta maite nauena.

◆ Pertsona batetan gehien eta guttien gustatzen zaizuna?

❖ Gehiena zintzotasuna eta guttiena gezurra.

◆ Munduko zein lekutara joanen zinateke gustora?

❖ Hego Ameriketara.

◆ Aitortu daitekeen bizio bat?

❖ Txokolatea.

◆ Zeri edo nori diozu beldurra?


❖ Guardia Zibilari.

◆ Gustoko kantari bat?

❖ Anje Duhalde.

◆ Zergatik dira beti eskas mutilak dantza taldeetan?

❖ Normalean neskek gehiago maite dugu dantzatzea, zergatik? Auskalo, ez dut ulertzen.



**Txaro ZUBIETA**  
Dantza irakaslea  
BERA

**Ostargi Optika**  
Bidasoa karrika, 8 • BERA • ☎ 948 - 63 07 53

**ttipi-ttpa** Zure publizitatearik onena  
☎ 631188

**KULTURKARI**  
Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletok
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hobereena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

☎ 631188

**PIKABEA**  
Molinero drogerian galdetu *pinturak*

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • BERA

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)

Tel.- Fax: 948. 63 10 27

## BOTA BERTSOA



## Nafarroako bertsolaritzari buruz txapeldunaren gogoeta

Estitxu AROZENA (Lesakarra)

Neurria: Bederatziko Haundia

*Txapela jantzi ta ez nuke nahi  
igotzerikan haizea  
oraindik ere ez baita lortu  
lurra gutziz iraultzea  
ez da normala lurralde zabal  
batean hau pasatzea  
fruitu gehienak herri bereko  
zuhaitzetik erortzea  
guk uzta ona baina urria  
auzokoen baratzea  
Hegoen gogo hezea  
Iparraren oinazea  
komeni zaigu bertsolaritza  
Nafarroan hedatzea  
penagarria bailitzateke  
Lesakara mugatzea.*

*Bazterturikan gelditu ziren  
bertsoa eta umorea  
norbait ohartu ta hartu zuen  
bersortzeko adorea  
Iruñeritik eman digute  
gaitasun adibidea  
Arano, Gaintza eta Arbizun  
berotu zaigu labea  
egoera hau ikusi eta  
puztu arren ohorea  
oraindik nahiko grabea  
ziurtasunik gabea  
hemen bertsoak laguntza behar du  
zurea eta nerea  
horrela soilik beltza izanen da  
txapelaren kolorea.*

### Kaixo Saraldeko lagunak:

Drindots taldeko partaideak gara, Internet sare honetan hasi berriak. Sarean zehar genbiltzala, zuen orria aurkitu dugu eta honako hau Drindots taldearen partetik goraintziak emateko besterik ez da. Beraz, eta aurtengoan ere zuen herriko jaietan elkar ikusiko dugulakotan, agur Goierriko talde honen partetik.

IGOR ETA XABIER

E-MAIL:  
FANDANGO@AUTOVIA.COM



### Gazte Egunari buruz

Jakin ezazue Lesakako Udalak herritarren artean mailak eta mailak bereizten dituela. Alkatearen jarrera prepotenteak dirulaguntzak ematean herriko gazte aunitz marjinatu ditu, bertze behin ere.

Baina hala ere, maiatzaren lehenean Lesakan bilduko gara inguruko gazteak Gazte Eguna ospatzera, zorretan sartzeko arriskuarekin baldin bada ere. Dirulaguntzetan diskriminaziorik ez!

LESAKAKO GAZTE ASANBLADA



### Lesakako HBri erantzuna

TTIPI-TTAPAREN azken alean, Xorroxin irriariaren mozio bat zela eta, Lesakako HBk harritu egin gaitu, bertze behin ere, bere ohiko ateraldi politiko batekin, us-tez euren etsai nagusia den PNVren izen ona kentzeko. Iduri du Lesakako PNVK Xorroxin irriariaren mozioaren alde ez bozkatzear harritu egiten direla, eta honezkero erantzuna baduten galdera batzuk egiten dituzte. Badakigu Lesaka bere gehienean euskalduna dela eta bide horretan ari gara lanean, baina badakigu aldiberean lesakarren interesak defendatzeko aukeratuak izan gi-

## IRAKURLEAK MINTZO

nela eta hori ez dugu atzenuko gure karguetan gauden bitartean, nahiz eta zuek aurka-koa egitea nahiko zenuteke. Zueri oroitarazi beharrea aurkitzen naiz, memoria sobera zuen ez dabilkizuela iduri baitu, TTIPI-TTAPA Telebista ere euskalduna eta hemengo dela eta zuek, ordea, ez zenutela haien mozioaren alde egin, (informazio faltagatik zuen erranetan). Lesakako Udalean PNVren boztoekin bakarrik onartu zen hau. Guk zalantzak ditugunean automatikoki euskararen etsaie-tan bihurtzen gara eta zuek, berri-ze, alde edo kontra bozkatu dezakezue nahi bezala?

Hau ezin dela horrela gelditu diozue, nik berdina erraten di-zuet. Zergatik eskatzen diozue nere partiduari, errikikula eki-diteko, mozioa berriz hartu eta bere egin dezan? Ongi da, behar-tzen nauzuelako, jakinarazi-ko dut zuek ez duzuela mozioa irakurri ere egin, bertzenaz Lesaka arrot gutti inporta zaizue-la eta fikzio-politika egiten jarrai-

tzen duzuela erakusten duzue, Lesakako Udalean eztabaidatu-tako mozioa, zeinen sarrera erregistroa 333. zenbakia den, ez baitzegoen testuan Udal honi zuzendua eta, noski, ni ez nago gisa honetako diskrimina-ziorik laguntzeko prest, zeren erranen didazue, zein da Lesakako herriarentzat diskrimi-naziorik haundiena, guk kontra bozkatzeara edo laguntza eska-tzen dutenek Lesakara idazte-ko lana ere ez hartzea, Berako Udalaren eskaera bat fotoko-piatu eta bere onarpenerako bi-daltzea baizik, kontutan hartuz, gainera, lizentzia Lesakari da-gokiola?

Beraz, utz ezazue gainontzeko-ek lan egin dezagun eta ez ar-duratu berteen errikikulueta eta zuenak ekiditeko, deus ida-tzi aitzinetik dagoeneko idatzi-takoa irakur ezazue eta gero behar bezala jokatu.

Xorroxin edo bertze edozein-entitate Lesakako Udalarari zuzen-tzen zaionean, guk pentsatuko dugu nola jokatu eta eskaerak bertze entitateei zuzenduak izani-rik Udal honi bidaltzerakoan, Lesakako herriarentzat horrek suposatzen duen erasoaren ara-bera, orain bezala jokatu du-gu.

Zernahi gisaz, bukatzeko erran beharra dut Lesakako Udalean gai hau eztabaidatu baino 10 bat egun lehenago Egin egun-kariak artikulo bat argitaratu zue-la Xorroxineneri lizentzia ema-tearen aurka geundela erranez; egileak edo bere informatzaile-ak artikulu honen zergatia argi-tu beharko luke, presionatze-ko izan baldin bazen, segurtatzen dizuet kontrako efektua egin zuela.

JOSÉ LUIS ETXEGARAI ANDUEZA  
LESAKAKO ALKATEA



### OHARRA:

*Iritzi ezberdinek  
tokia izan dezaten,  
ez da komeni  
makina idatzitako  
25 lerro baino  
luzeago idaztea  
gutun hauetan.  
Idatzi duenaren  
izen-deiturak,  
telefonoa, helbidea  
eta Nortasun  
Agiriaren fotokopia  
agertu beharko  
dira. Laburtu  
beharra izanez  
gero, **ttipi-ttapa**  
bere esku izanen du  
horretarako  
eskubidea.  
Ez dira  
argitaratuko beren  
nortasuna agertzen  
ez digutenen  
iritzirik.*



## IRAKURLEAK MINTZO

**Gazte bat lanpostu bat:**

Heldu den apirilaren 23an, Hego Euskal Herri mailan ordu bateko lan-uzte orokorra eginen da. Lan-uzte honen helburua, lanpostu berriak sortzeko lan orduen murriztea eskatzea da. Halaberean, gizarte soldataren aldeko herri ekimen legegilearen apostuarekin aitzinera jotzeko aukera paregabea izanen da.

Nolanahi ere, gizartearen eskaera hauek orokorrak izanagatik ere, gazteok gure eskari zehatzak ditugu, gazteon bizibaldintzak hobetzea. Izan ere, datu makroekonomikoak eta ekonomi indizearen gorakadak erakusten digutenaren aurka, gazteon bizibaldintzak makurragora doazte.

Aldibaterako Lan Enpresak (ABLE/ETT) prekaritatea eta lan baldintza txarrak, lan arloko maila guztietara hedatu dituzte. Lanpostu gehiago sortu beharrean, soldata kaxkar baten truke gure lan indarra saltzera behartzen gaituzte. Gazteak, Baztandik atera behar izaten dugu lana bilatzeko, bertako erakundearen zabarkeri eta utzi-keriaren ondorioz, zeinen apostua, turismoak eta garraiobide sarea hobetzeak sortuko omen dituzten baldintza ekonomiko hobeetara mugatzen baita.

Etxebizitza propioa edukitzea, ametsa baino ez da gazteondako. Gurasoen etxebizitzetan bizi behar dugu, eta gauzak bere horretan badiraute, bizi guztia "zaharren" etxean pasatu behar dugu.

Gazteon gabezien, eta beraz eskaeren zerrenda luzea da. Lehen urratsa, gazteon eskaera zehatz hauek, gizarteak bere egitea da.

Gazteok gizaki bezala dagokigun duintasuna aldarrikatzen dugu lan eta etxebizitza duinetan isladatua.

Apirilaren 23ko lan uztea ekinbide honetan aitzin urra-

tsa dela ulertzen dugu. Horrela bada, heldu den 23an gazteok ere mugituko gara, eta Elizondoko Lanbide eskolan nola, Lekarotzko ikas-etxean egun osoko greba eginen dugu.

Kapitalismoaren aurka eta giza duintasunaren alde, lana eta etxebizitza!!!

ELIZONDOKO IKASLE ABERTZALEAK  
BAZTANGO JARRAI  
BAZTANGO GAZTE ASANBLADA  
MARI TALDEA

**Telebista saioa**

Laister telebistaz emanen den lehiaketa-saio batetara-

ko partehartzaile posibleen bila ari gara. Saioan lau partehartzaile izanen dira. Euren proiektu edo ilusio pertsonalak finantzatzeko egin dituzten zorrei ahalik eta diru kopuru haundiena murrizteko lehiatuko dira. Helburu horiek materialak edota ez materialistak izan dai-

tezke. Lehiaketa gazteleraz izanen da. Norbait interesatuta baldin badago, deitu 94-6215300 ra, eta galdetu Asier Bilbaogatik. Zure laguntza izanen dugulakoan, jaso nire agurrik beroena.

ASIER BILBAO



**APIRILAK 26 de ABRIL**  
RESTAURANTE BEOLA ALMANDOZ  
Horario: 11 h.-14 h. / 16 h.-20 h.

# feria de abril

# apirilako feria

ASUN VIELA PELUQUERIA  
BODEGAS IRACHE  
COCO'S  
FLORISTERIA IRIS  
FOTO MENA  
IBARROLA NIÑOS  
JALISKO BAND  
Mª CRUZ LENCERIA  
MARELI ARROPA DENDA  
MUEBLES TELLETXEA  
RESTAURANTE BEOLA  
TTIPI-TTAPA  
ZAPATERIA VIRGILIO

DISERNUA: ITZIAR MENA BARBERENA

## MERKATAL JARDUERAK

# Almandozko Beola jatetxean ospatuko da Apirileko Feria

Igande honetan, desfileak eta erakusketa ikusteko aukera

TTIPI-TTAPA

Igande honetan, apirilak 26, Almandozko Beola jatetxean erakusketa-feria antolatu dute zonako zenbait dandari eta profesionalak. Bertan, arropa, zapata, lentzeria, argazkilaritza, ileapaintze, moble, teknologia eta bertze zenbait arlotan dauden azken berrikuntza eta tententziak ikusteko parada izanen da, moldatu berria den Beola jate-txe-hotelean.

Erakusketa-feria honetara sartzeari dohain izanen da eta Beolak prestatutako pateak eta ardandegi bateko ardoak dastatzeko aukeraz gain, bi desfile iragarritako daude, eguerdikoa 12,30etarako eta arratsaldeko 6,30etarako.

Desfile horietan hementxo jendea ikusiko dugu pasarelan. Haur, gazte eta emakumeak

ibiliko da arropak eta zapatak soinean jauntziak dituztela. Kanpoko arropaz gain, lentzeria, bainu eta osagarriak jauntziko dituzte modeloek. Modeloak bertan eginen diren orraxkerak, tinteak, bilduak eta makilaiekin apainduak egonen dira.

Desfileaz gain, egun osoan erakusketa zabalik egonen da: lorendak txiki bat barne eta kanporako landareekin hornitua egonen da. Eraberean, lore xortak, zentroak eta bertze hainbat lore lan ikusgai egonen dira. Argazkilaritza arloan, ordenagailuz argazki zaharrei nahiz berriei egindako erretokeak erakustera emanen dira. Altzari erakusketa tiki bat ere izanen da eta guztia alaitzeko *Jalisko Band* taldeak joko du.


**Orraxkerak ere erakutsiko dituzte modeloek**

## HERRI URRATS



### Herri Urrats Senperen maiatzaren 10ean

Aurten hamabosgarren aldia beteko du Senpereko aintzira inguruan Seasakako ikastolen alde egiten den Herri Urratsak. Goizeko 9etan zirkuitoa edekitzen denetik besta eta elkartasun giroa hedatuko da, 'Eltzegorra joz' lemapean. 10etan Euskal Herriko joaldunen itzulia eginen da. Ekitaldiak, hiru gunetan izanen dira. Haurren txokoa 12etan Xaxa eta Xuxa pailasoak egonen dira eta 2etan Euskaraoko. Egun osoan arrantza jokoa, mozorroztzea, kanoak eta jolasez gain, Uztaroren Sonügailu kaniakadüna eta Super Bat izanen dute. Helduentzat ere nahiko animazio izanen da, trikitixa, txaranga edo bertsolariekin.



**BOTXO ostatua**

Tfnoa: 948 630 052  
Zalain Auzoa, BERA

**FOTO GOIKO**

Altzate 26  
Tel.-Fax: 948630515  
BERA

**SAROB**

**okindegia**



**SANDERS Pentsuak**

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

948 630 800

**ALZAGA**

KANTONBERRI, 2 - BEHEA - BERA - (lehen Artieda)

- Gidatzeko karneten tramitazioa
- Karneten berritza

**Dia** %  
Autozerbitzua  
deskontua

**Hamabostero ofertak**

Zatoz eta ikusi

Eztegara, 6  
948631403 • BERA

# Kultur eskaintza zabala 1998rako

Egitarau bateratua aurkeztu da

**ASIER GOGORZA**

Herriko kultur talde desberdinek osatzen duten Kultur Batzordeak urte guzian izanen diren ekitaldien zerrenda aurkeztu dio Udalarari, honek eskatu bezala. Denen artean egitarau zabala eta orekatua presatatu dute ikusten ahal den bezala, bertze urte-etako gorabeherak saihestuz.

Egitaraua osatzeaz gain, datozen urteetan kulturekitaldien aukeraketa egiterakoan kontuan eduki beharreko irizpideak ere finkatu ditu Kultur Batzordeak. Herritar guzien beharrik asetzeari da helburua. Horretarako, urte-urteroko antzerki, mu-

sika emanaldi, hitzaldi, erakusketa eta ikastaro desberdinak antolatuko dira, adin guzietako jendearentzat.

Bertzalde, zenbait eskaera egin dizkio Kultur Batzordeak Udalarari. Ekitaldi kulturaletan biltzen den dirua kultur taldeek euren beharren arabera kudeatu ahal izate-a, batetik, eta kulturekitaldiak eta taldeak koordinatuko dituen dinamizatzaile bat kontratatzea, bertzetik. Kultur dinamizatzaile horrek bete beharreko ezaugarriak xehetu dira txosten berean. Azkenik, lehenbailehen bilera bat dei dezan eskatu diote Udalarari, kulturako zinegotziek duten kultur politika argitzeko, beretzak bertze.

DATA	EKITALDIA	ANTOLATZAILE
Apirila 23-25	Liburu Eguna Txiki Langagorri	Lamixine Jesusen Bihotza
Maiatza 9	Liburuaren Eguna: Cano-Sarriegi Bertso-poemak Hika Mugaz Gain Hitzaldia: Objezio fiskala, intsumisioa. Kontzertua	Gure Txokoa-Lamixine Musika Eskola Lamixine
16-25-31		
29		Gure Txokoa Gazte Asanblada
30		
Ekaina 12	Maia, Iturriaga, Josu Goikoetxea: Bertso-ipuina. Haurren antzerkia	Gure Txokoa Ricardo Baroja
13-20		
Uztaila 19-31	"Caricias" Udalekuak Sendabelar tailerra Gazte Jokoak	Lamixine Kaxerna-Labiaga Gure Txokoa Gure Txokoa-Lamixine
25	Nazioarteko Dantza	Gazte Txokoa-Kaxerna
Abuztua 8	"El Florido Pensil"	Euskara Batzor.
Iraila	Argazki Tailerra Tangoneando Klarinete emanaldia Dantzari Txiki Eguna Ludoteka eta Gazte Txokoa	Gure Txokoa Jes. Bihotza Musika Eskola Gure Txokoa Kaxerna
Irailetik aitzinera		
Urria 28	Katamitus Lurraren Eguna Tolosako Abesbatza	Jes. Bihotza Gure Txokoa Abesbatza
Azaroa 14-26-5	Koroa Bertso-paper Lehia. Herriak eta Hiriak	Musika Eskola Gure Txokoa Gure Txokoa
Abendua	16 Jazzeroak Urtekariaren argitalpena	Jes. Bihotza B.I.Z.

**flash**

- ❖ **Liburuaren Eguna Txiki**  
ospatuko da apirilaren 23an. Goizeko 9etatik 11etara haurren antzerki emanaldi bat izanen da Kultur Etxean, eta ordu berean ipuin kontalari bat arituko da liburutegian, ttikienezako. Asteleheneretik ari dira haurrak liburua objektu artistikoa bezala lantzea helburu duten ekin-tzetan parte hartzen.
- ❖ **Bestetako Egitaraua**  
Joan den asteazkenean, apirilak 16, bilkura bat egin zen Herriko Etxean, San Esteban Bestetako egitaraua zehazten hasteko.
- ❖ **Langagorri**  
Oreretako antzerki taldeak "Mi tia y sus cosas" antzeztuko du larunbatean Kultur Etxean. 7,30etan.

## Mikel Urtxegi garaile Ordiziako jaialdian

Mikel Artieda (bajua) eta Igor Telletxea (baterian) lagun zituela, Ordiziako II. Akordeoi Jaialdiko txapel-dun suertatu zen Mikel Urtxegi akordioilari beratarra. Saria milioi erdiko akordeoi bat zen, 150.000 pezeta eta bi trofeo. Mikelek hemezortzi urte ditu gaur egun, eta zortzi bertzerik ez zituela hasi zen soinuari eragiten. Argazkian, Juan Vicente Erasukin Ordiziako alkatearen eskutik sariak jasotzen.



## I. Pilota-goxo Txapelketa

Maiatzean zehar eginen da Gure Txokoa Elkartek lehenbiziko aldiz antolatu duen Bortzirietako Pilota-goxo Txapelketa Herrikoia. Pilota goxo-goxoekin jokatuko dira partiduak, nornahik parte hartzeko moduan. Txapelketa emakume zein gizonezkoek jokatuko dute nahasian, eta bi multzo edo kategoria izanen dira akeran. Bikote bakotzak erabakiko du nolako

maila duen, eta horren arabera, ze kategoriatan jokatuko nahi duen. Ligak moduan jokatuko dira lehen neurketak, baina partehartzaile kopuruaren arabera erabakiko da kanporaketa sistema. Izen ematea Zizka, Errekalde eta Pui ostatuetan egin beharko da, edo antolatzaileengana joz (948 630029 Gorka). Bikoteek 1.000 Pta ordaindu beharko dute.

**ALZURI**

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

**LOZOTEGI-JAIONE**

**Javier Manterola**

TEKNIKO  
INSTALATZAILEA  
iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 948 630 031 • BERA

**LESKA**

# Hainbat ekitaldi prestatu dira maiatzaren 1eko Gazte Egunerako

Mus eta pilota txapelketak, trikitalariak, bertsoak eta kontzertua

**AITOR AROZENA**

Lesakako Gazte Asanbladak, zenbait osaturen laguntzaz Gazte Eguna antolatu du maiatzaren 1erako. Goizeko 11etan bikotekako pilota txapelketaren finala jokatuko dira. Arra-

tsaldeko 3etan, berriz, mus txapelketaren txanda izanen da. 5etarako trikitalari gazteen sari-keta prestatu dute. Parte hartzeko 948 637 855 telefonora (Alaitz) deitu behar da lehenbailehen. 7etan bertso saioa egingen da, Jon Maia,

Maialen Lujanbio, Xabier Silveira eta Xabier Legarreta bertsolari-ekin. Ordu bete berandua go, kalejira-poteoa izanen da, txarangaren laguntzaz. 9etan bideoak eskainiko dira Bittiriako parkeko kontzertu eremuan. 10etan, azkenik,

kontzertua izanen da, Etsaiak, Inadaptats, Kashbad taldeekin. Gero, Etzakit taldea arituko da. Txartelak 1.000 pezetan salgai daude.

Lana eta etxebizitzari buruzko erakusketa zabalik egonen da egun osoan plazan.



## Euskal Jaiaren seigarren edizioa maiatzaren 3rako antolatu du Tantirumairu dantza taldeak

Igande honetan zortzi, maiatzaren 3an, ospatuko da Tantirumairu dantza taldeak, ikastolaren eta Lesakako Udalaren laguntzaz antolatutako Euskal Jaiaren seigarren edizioa. Aurreneko sei talderen dantzak ikusi ahal izanen dira, herriko Irain eta Tantirumairukoekin ba-

tera, Falzesko dantza taldea, Portugaleteko Berriztasuna taldea, Orioko Musika Eskolako dantza taldea eta Lasarteko Erketz dantza taldea arituko baitira. 225 dantzari espero dira eta hauekin batera 45 musikari eta arduradun etorriko dira. Eguneko egitaraua

11,30etan hasiko da, txistularien kalejirarekin. Halere, ordu erdi lehenago hameketakoa eskainiko zaie kanpoko taldeei ikastolan. 12etan desfilea egingen dute arestian aipatutako taldeek karriz karrira. 1etan talde guzietan dantza saioa egingen dute plazan. Gero, dantzariak eta arduradunak, denak elkarrekin, kalejira egingen dute. Beti bezala, kanpo-

ko dantzariak herriko dantzarien etxeetan bazkalduko dute. Arratsaldeko 5etan Detraka animazio taldeak 'Trikimailu Express' ikuskizuna eskainiko du plazan, haurrei parte hartzeko aukera emanez. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, eguraldi txarra egingez gero, eguerdiko saioa eta arratsaldekoa pilotalekuan egingen dira.

**flash**

❖ **Patrizio Goienetxe** herriko presoak Murtziako espetxetik Arabako Langraitze-  
ra ekarri dute, «*osasun arrazoia*» direla eta. Gogoratuko denez, Patrizio 1993ko urritik espetxean dago, 27 urteko gartzela zigorra betetzen.

❖ **Kinto afaria** 1958, 59 eta 60an jaiotakoek maiatzaren 2an izanen dute beraien kinto afaria. Txartelak apirilaren 26a bitartean salgai egonen dira Ziobi, Koxkila eta Etxeberria ostatueta.

❖ **Kinto bazkaria** 1966, 67 eta 68an sortutakoek berriz, maiatzaren 1ean egingen dute beraien kinto bazkaria Kattun. Txartelak salgai daude Koxkilla, Telebote eta Haizegoa ostatueta.

❖ **Kultur ekitaldiak Atxaspin** Ortzirale honetan, Kubako Polito Ibañez kantariaren emanaldia izanen da gaueko 11etatik aitzinera Atxaspi ostatuan. Lehendik, *Hemendik At* eta *Lorelei* taldeak izan dira. Igandea bitarte ikusgai egonen dira Mattin, Euskaldunon Egunkariko eta zenbait aldizkarietako komikilariaren marrazkiak.

**BEKO ERROIA**  
Lore eta landareak  
Frain auzoa • 948637826  
LESKA

**Deñe**  
LENTZERIA  
MERTZERIA  
Tfnoa.: 948 627 514  
Beheko Plaza 8, LESKA

**TXIRULA**  
• bitxikeriak •  
• opariak •  
• enmarkazioak •  
Albistur, 39-K  
948627542 • LESKA

**kixkur**  
**Ileapaindegia**  
Tel: 948 637429  
Bittiriako Plaza, 3 behe  
LESKA

**ETXALAR**

# Ordezko medikurik ez Osasundegian

Pediatra oporretan dela eta, haurra Irunera eraman behar

PELLO APEZETXEA

Haserre dagoz gurasoak. Haurra eri, pediatrari Osasundegira deitu eta pediatra oporretan. Oporretan egoitea gauza bat da, baina ordezkorik inor ez izatea, hori da ulergaitza. Eta ez egun batez, egun multzo batez baizik. Orduan, gurasoak haurra hartu eta Irunera jo behar. Gertaera egun hauetakoa da, baina ez berria. Lehen ere suertatu baita.

**Urteko aitzin-kontuak**

Urte honetan 90 milioi eta erdi gastatuko ditu Udalak. Beraietatik 32 milioi, obratan. Gisa honetara: baserri bideak moldatzeko, 7 milioi pezeta. Behokolandan egingen den urbanizazioa, 7 milioi. Larraburuko Zaharretxea moldatzea, 6,5 milioi. Apar-kaleku berriak, 1,8 milioi. Herria txukuntzeko obratan, 1,3 milioi.



Herriko Etxe zaharra berriztatua ageri da

Argazkia: Pello

Oihanberritzetan, 1,3 milioi.

**Behokolandaren urbanizazioa**

Behokolandan badira dagoeneko etxe batzuk eginak, eta, arau subsidiarioen arabera, egiten ahal da bertze zenbait. Karrika breaztatu gabe dago, eta, aintzinetik, saneamendu, argi eta telefono hariak

lurperatu gabe. Etxea dutenek hori dena lehen baino lehen gauzatzea nahi dute. Etxerik egin ez dutenek, berriz, ez dute gastutan sartu nahi. Eta, nola ordainduko du-te orain arte egindakoei gastu osoa? Udalak zera pentsatu du: oraindik egingabeko etxeei dagokiena berak ordaindu, eta etxe berriak egiten joan ahala, ba-

kotxari bere parte ordainarazi.

**Lizarietako aduana-etxola udalaren esku**

Goikoei hartu beharreko erabakiak nekez eta luze hartzen dituzte. Zenbat denbora da Lizarietako aduana kenda zutela? Horretarako erabiltzen zen etxola beharhala galdetu zuen

**flash**

**Igerilekuetarako deialdia**

Igerilekuetako zerbitzua nork hartu, eskaria egiteko epea zabaldu du Udalak. Apirilaren 23a arte sartzen ahal dira eskariak Herriko Etxean. Egin beharreko lana, Ekainaren 20tik Abuztuaren 31 arte luzatuko da. Nahiz eta, eguraldiaren arabera, zerbait luzatzen ahal den.

**Urbanizazio arau berriak**

Karrika inguruko lur zatiak nola antolatu, etxeak non egin, etabar, begiratzen ari dira arkitektoak. Erabaki aintzinetik, lurjabeekin egingen dute solas, arauak ahalik eta egokienak gerta daitezten.

Udalak. Orain, noizpait, bere izenean gelditu da. Etxola horren truke, aparkalekurako lur zatiren bat lortu nahi luke Udalak, eta herriarren eskeintzak onartzeko prest dago.

**IRU BIDE**  
ERRETEGINA  
Tfnoa: 948 637 127  
**LESAKA**

**INAXIO JANARIDENDA**  
gandetan 9etatik 13etara irekia  
ASTERO eskeintza bereziak  
Plaza Zaharra, Tfnoa: 948 637 059 - **LESAKA**

**ANA**  
janaridenda  
Bittiria, 41 • © 948637944  
**LESAKA**

**XATURETXEA**  
JATETXEA  
Tfnoa: 948637027 **LESAKA**

**KOXKILA**  
**OSTATUA**  
Zarandia, 4 - **LESAKA**

**OBRA PROIEKTUAK**  
✓ Etxe berriak eraikitzeko  
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik  
✓ Urbanizazio proiektuak  
✓ Obra-zuzendaritza  
Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan  
**BIDASOA**  
arkitektura bulegoa  
Bittiria, 45 • © 948 637 503 • **LESAKA**

**EROSLE**  
LESAKA  
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena  
**Frexkuena**  
zugandik  
hurbilago  
Bittiria, 67 - © 948637264  
**LESAKA**

**IGANTZI**

# Landa-etxeak beteak Aste Santuan, baina eguraldi ezin txarragoa

Pilotaleku berriaren lanak hagitz mantso doazi

**OSKAR TXOPERENA**

Herriko landa-etxeetan ez dute leku aunitz soberan izan Aste Santu honetan. Turistak, halere, ez dira azala beltzatuta bueltatu izanen, euria eta haizea bertzerik ez baitute eduki.

**Pilotalekuaren lanak**

Lehendik nahiko mantso baldin bazihoazten pilotaleku berria egiteko lanak, hilabete bat baino gehiago joan zaie deus egin gabe. Orain arte egin diren lan bakarrak baratzeko lurrrari eusteko pareta altxatzea eta Altsoltzenea aldetik egin den sarreberria txukuntzea izan dira. Aste Santuan egin duen euriarekin putzu ederra sortu da bertan. Uda parterako akautua beharra zena, ez litzateke txarra izanen bes-



**Jubilatuena Besta**

Gimnasia ikastaroetan aritu diren jubilatuak joan den astean izanak dira Iruñean urtero egiten den besta. Ikusten denez, laguntza ere eraman zuten Iruñea aldera. Besta egin badute ere, oraindik pixka batean lanean segitu beharko dute, ikastaroa akautu gabea dute eta.

Argazkia: Oskar

tetako akautua ikusiko bagenu.

**Gazteekin bilera**

Errana genuen aintzin horretan bazegoela gogoia Biltoki Elkartean gazteen arazoari

aterabidea emateko. Joan den asteazkenean, apirilak 22, zeuden deituak hamalautik hemezortzi urte bitarteko gazteak elkartekoekin lehendabiziko bilera bat egiteko. Hurrengo ale-

tan emanen dugu emaitzen berri, hurbiletik segitzeko gaia baitugu, dudarik gabe.

**Rock kontzertua**

Xorroxin Irratiak antolatuta, Berako Zuptal-

deak eskeini zuen rock kontzertua apirilaren 4an, arratseko 11etan, Biltoki elkartean. Jakina denez, denbora gutti falta da Nafarroako Gobernuak Lesakari dagokion irrati lizentzia banatzeko, eta hori dela medio, buru-belarri sartuak daude Xorroxingoak lizentzia hori eskuratzeko kanpainaren barrenean.

**Eskulan ikastaroak**

Aste Santu aintzinean akautu zituzten eskulan ikastaroak udazkenean hasita direnek. Bizpahiru hilabeteko hasiak ziren, baina gustora ari zirenez, politikorain arte luzatu dute. Aski gauza politak egiten ikasi dute M<sup>a</sup> Puy irakaslearekin. Despedida heldu den ortziraletan emanen diote Merkatenean eginen duten afariarekin.

**CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIBIZUN S.L.**  
 Makinaria eraikuntza  
 Moldaketak eta despiezea  
 Mantenimendu mekanikoa  
 Torno, fresadarak, errektifikadarak  
 Igantziko Bentak • ☎ 948627572 • Faxa: 948637313

**ZALAIN JATETXEA**  
 Zalain Auzoa  
 ☎ 948631106  
**BERA**  
 EGUNEKO MENUA ETA KARTA  
**Boda eta banketeak ematen dira**

**KATTU**  
 ostatu - jatetxea  
 Plater konbinatuak eta menuak  
 ☎ 948627573 • **LESAKA**

**ATM S.A.**  
 AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.  
 • Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera  
 • Enbalaketa elementuak eta flejeak.  
 • Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)  
 • Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)  
 Igantziko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

**BORTZIRI UNSION ANAIK**  
 sukalderako haltzariak  
**ERAKUSKETA**  
 Bereau etxea • **LESAKA**  
 Tel eta Faxa: 948 637 266

**GRUPO ZURICH**  
**ASEGURO OROKORRAK**  
 Itzea, 4 • **BERA**  
 ☎ 948 630 763

**ARANTZA**

# Jubilatu taldeak dantza ikastaroak egingen ditu aurten ere

Haur kantu txapelketaren finalean ez zen arantzarririk izan

ELIXABET ETA GARBIÑE

Soinketa egiten duen jubilatu taldeak apirilaren 15ean besta eguna zuen Iruñean. Bertan 400 pertsona baino gehiago elkartu ziren eta denak batera egun ederra pasatu zuten.

Bertzalde, joan den larunbatean, mezaren ondotik Zahar Txokon bilera egin zen. Dantza ezberdinen ikastaroa egiteko intentzioa dute aurten ere, eta ikastaro honen nondik norakoak finkatu behar zituzten bileran.

## Arantzarrak Nafarroako Haur Kantu txapelketan

Martxoaren 14an, Arantzako gaztetxo batzuk Ilunberrin izan ziren, Nafarroako Haur Kantu txapelketan parte hartzen. Bertan, Aitziber Almandoz eta



Arantzako Udala da Bortzirietan Udaleri Euskaldunen Mankomunitadean sartua dagoen bakarra

Argazkia: Garbiñe

Gurutze Pikabeak osaturiko bikoteak 'Sex and cigarettes' abestia kantatu zuen. Aintzane Pikabea bakarlaririk, bere aldetik, 'Txorieri min-

tzo zen' kantarekin parte hartu zuen. Taldeka parte hartu zuen koadrilak, azkenik, 'Popurri' abestu zuen. Nerea Alzuri eta Amaia Telletxe-

aren gidaritzapean joan ziren gazte hauek ez zuten finalerako txartelik eskuratu, baina hala ere hagituz gustora gelditu ziren beraien lanarekin.

flash



### UEMA Egunaren kartela

Maiatzaren 24an Arantzán ospatuko den UEMA Egunak badauka dagoeneko bere leloa eta kartela. 'Arantzán zer? uskaraz leher' lelopean ospatuko da egun hori. Eguneko programa ere zehaztu xamarra dago: goizean txaranga arituko da eta ekitaldi instituzionala egingen da. Pilotalekuko bazkariaren ondotik, pailazoak eta erromeria izanen dira.

**ANTZUZELAI S.L.**

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzimaldak	Tximiniak
Angelak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihok	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abuzantzu' Zahar antzekoak Muzioa Txapinatu

**ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK**

**ALBERGIA JATETXEA**

**ATERPE ALBERGIA**

© 948634179

**ARANTZA**

**koxkonta**

**SAGARDOTEGIA ZABALIK**

**Paregabeko idi-txuletak**

Deitu orreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 948627503/948627519 • **LESKA**

**DROGUERIA MOLINERO**

• DROGERIA • LURRINGEGIA • OPARIAK •

Udaberrian, 'TKrom' kalitatezko pintura plastikoa eta esmaltea %30eko merkealdiarekin

Eztegara 19 • © 948 630 240 • BERA

# Eguraldi txarraren ondorioz ez zen Aste Santuko prozesiorik egin

Halere, jende aunitz ibili da herrian barna egunotan

JAIONE ETA ALBA

Aurten ere ez zen prozesiorik egin Ortziral Santu egunean. Eguraldiak ez zuen lagundu, euria etengabe aritu baitzen. Baina eguraldi txarrak prozesioa egitea galarazi bazuen ere, ez zen berdin gertatu turista eta bisitariekin, jende ugari ibili baita herrian egun hauetan.

## Pilotalekuaren ardura Rufino Arrietak hartu du

Aitzineko alean aipatzen genuen bezala, pilotalekuko etxebizitza, pilotalekuko mantenimenduari truke eman da eta Rufino Arrietak hartu du. Pilotalekuan burutzen ari diren obrak akitzeko puntuan daude, beraz, laister izanen dugu frontoi 'berria', zaindari eta guzti.



Udaleko kideak Osasun Plan berriaren aurka azaldu dira

Artxiboa

## Osasun plan berria martxan jarri da

Orain arte, Sunbilla eta Bertizaranako biztanleak izanen ditu bere esku. Doneztebeko medikuak lan gehiegi zuela eta, banaketa berria egin zuten Osasunbideako sen-

dagileen artean. Horren ondorioz jarri zen martxan 'aldez aurreko zita' sistema. Hala ere, jende guztia ez dago plan honekin ados, eta Sunbilla Udalak berak aurkako iritzia aurkeztu du.

dagileen artean. Horren ondorioz jarri zen martxan 'aldez aurreko zita' sistema. Hala ere, jende guztia ez dago plan honekin ados, eta Sunbilla Udalak berak aurkako iritzia aurkeztu du.

## flash

### Igerilekuetako arduraduna

Margari Capdequi izanen da aurten ere, berea izan baita epearen barrenean Herriko Etxean aurkeztutako proposamen bakkarra.

### Bidasoa-Berroarango Mendi Batzordeak

Zubizar-Itxegi bidearen zolaberritzea egiteko lehiaketa-deialdia egin du. Hasierako prezioa 11.566.294 pezetakoa da (BEZ barne) eta behin hasiz gero, lau hilabeteko epea izanen da obra akitzeko. Proposamenak maiztaren 4a baino lehen aurkeztu behar dira Donezteboko Udaletxean.

### Berriemaileen oharra

Aitzineko alean, Asteburu Kulturalaren laguntzaileen artean Herriko Etxea ahaztu genuen, inolako asmo txarririk gabe. Barkamenak.



## SANTAMARIA Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 948 450 043 - DONEZTEBE



## J. RAMOS

Zolak akutxilatatu eta barnizatzen dittut

© 948631342 BERA • © 948637172 LESAKA



## APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133  
948 451 541  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

### ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak  
Beztitzeak, etab...

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • ARIZKUN  
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • NARBARTE  
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • ELIZONDO

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



### IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60  
Tfnoa: 26 09 54



**DONEZTEBE**

# Erreka eskubaloi taldea Udaberriko Kopa irabazteko borrokan ari da

Multzo arras gogorra suertatu zaionez, ikuskizuna segurtatua dago pilotalekuan

PATXI IRIARTE

Patxiku Ganboak entrenatzen duen Erreka eskubaloi talde nagusiak liga bikaina burutu du, Lehen mailara igotzeko fasera sailkatzea lortuz –zenbait urte ez hain onen ondotik–. Denboraldia ez da akitu ordea, eta hain garrantzitsua ez bada ere, egunotan Udaberriko Kopa jokatzeko ari dira. Hemen ez da goerarik ezta jautsierarik ere jokatzeko, baina talde indartsuak ikusteko aukera dago. Errekaren taldean erraterako, Burlata, Portland San Antonio B, Anaitasuna B, Maristas eta Ohorezko B mailan ari den Anaitasuna daude. Orain arte jokatuak bi partiduetan, porrota eta garaipena ezagutu dute doneztebarek. Sei talde hauetatik bi sailkatuko dira finalerdietarako. Errekak zorte txarra izan du, talde indartsuenak bere multzoan daudelako, baina eraberean, Doneztebeko pilotalekura datorren ikuskizuna hobea izanen da.



## Laxoa taldeek txanponaren bi aldeak erakusten

Laxoa taldeek txanponaren bi aldeak erakusten ari dira aurtengo txapelketan. Alde batetik, argazkian ageri diren txapelak (Mariezkurrena, Iribarren, Patxiku Ganboa eta Luisimi Apeztexea) txapela berritzera ateratu direla erakutsi dute, jokatuak hiru partidak arazorik gabe irabaziz. B taldea (Felipe Ganboa, Lander Erkizia, Joxe Irigoien eta Juan Telletxea) ordea, azpitxapelak izan arren ez da ongi hasi eta aunitz hobetu beharko dute finalerdietarako txartela eskuratzeko. C taldea (Apeztegia, Oiartzabal, Jokin Apeztexea eta Mendiburu) da aurtengo ezusteko atsegina eta emaitza onegirik lortu ez badute ere, iaz baino aunitzez hobea ari dira jokatzeko.

Artxiboa

## Kinto bestak

Malerrekako hiru kintetako kideak bilduko dira larunbat honetan, apirilak 25. Doneztebeko Titi Ostatuan.

Nortasun agerietan ageritu behar duten jaiotze urteak 1974, 76 eta 78 izan behar dira eta hasiera batean, jaiotze berrean elkartzen badira

ere, ez dute deialdi bateratua egin, hau da, elkarrekin baina ez nahasirik. Bi kinta bazkaltzera elkartuko dira eta bertzea afaltzera.

## Arkupeak elkarteak gimnasiaren besta ospatu zuen

Arkupeak elkarteak 400 bat kide Iruñeko Anaitasuna kiroldegian bildu ziren apirilaren 15ean laugarren urteko gimnasiaren besta ospatzeko. Erretiratuak elkarteak urtero antolatzen dituen mantengimnasia ikastaroetan 500 bat lagun aritzen dira eta bertan ikasitakoa erakutsi zuten Iruñean. Zortzi erakusle eta musikaren laguntzaz, koreografia eta gimnasia-eraketa ezberdinak egin edo ikusi ahal izan ziren (beti ere ariketa ariak). Ekitaldira Nafarroako Gobernuak ordezkariak eta CANeko Urrezko Adina elkarteak ordezkaria azaldu ziren. Partehartzaileei zilarrezko giltzariak eta erakusleei zurean egingako ordulariak eman zizkieten. Gero, Arkupeak elkarteak etxetik ateratzen diren aldiro bezala, bazkari ederak Iruña Park jatetxean eta gimnasia gehiago, oraingoan dantza lekuan.

**BELARRA**  
OSTATUA - JATETXEA  
Ameztiako karrika • DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 450 306

**AMEZTIA**  
Jatetxea - Hostala  
Especialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan  
Tfnoa: 948 450 028 • DONEZTEBE

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**DONEZTEBEn**  
**MALDAERREKA, S.L.**  
24 orduko zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 948637404 • LESAKA  
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

**ETXANDI**  
**TXOKO**  
**jatetxea**  
Bazkari, afari eta gosariak  
**ITUREN**  
☎ 948 450 491

## BERTIZ

### Natur parkea ezagutzera emateko zenbait ekitaldi antolatu ditu Ingurugiro Departamenduak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamenduak Bertizko Natur Parkea ezagutzera emateko asmoa du. Hori dela eta, 'Nafarroako Basoak' izeneko argazki erakusketa zabalik dago apirilaren 6tik maiatzaren 3a bitartean. Erakusketa interesgarri hau bisitatzeko ordutegia, astelehenean arratsaldeko 4etatik 8etara eta asteartetik igandera, goizeko 10etatik 2etara eta arratsaldeko 4etatik 8etara.

#### KONTZERTUA

Bertzalde, joan den ortziralean, apirilak 17, maila haundiko kontzertua aditzeko aukera izan zen, Ingurugiro Departamenduak Nafarroako Aurrezki Kutxa

## ITUREN



### Lasaga auzoko oinezkoendako zubia itxuraberrituko da aurten

Lasaga auzoko zubia, batez ere oinezkoek eta Iñaute garaian joaldunek erabiltzen dutena, aurten moldatuko da. Lanen aurrekontua 8.790.655 pezetakoa da eta, Bianako Printzea erakundeak aurrekontu horren erdia, 4.395.327 pezeta, emanen duela hitz emana du. Honetaz gain, Cederna-Garalur erakundetik ere dirulaguntza lortu nahi da, Iturengo Herriko Etxetik jakinarazi dutenez.

Arg.: Aitor

eta Artis enpresaren laguntzarekin antolatutako jaialdian. Bertzen bertan burututako Musikari Gazteen I. Topaketan irakasle bezala aritutako Tatiana Krinkova (pianoa), Maria Tchakovskaya (biolontxelo) eta Armen Mardjanian (bibolina) aritu ziren.

### Xorroxinen aldeko kontzertua ortziral honetan Iturengo Herriko Etxeko sabaian

Xorroxin Irratiak 'Euskalduna hitza, bertakoa bihotza' kontzertu zikloaren barnean, ortziral honetan, apirilak 24, gaueko 10etatik aitzinera *Petti* eta *Pottoka* arituko dira Iturengo Herriko Etxeko sabaian. Jakina denez, Nafarroako Gobernuak egiten duen irрати-lizentzien banaketan Lesakakoa eskuratu nahian dabilta Xorroxingoak.

## EUSKARA



### 'Natur Kirolaz euskaraz gozatu' maiatzeko lehen asteburuan

'Natur Kirolaz euskara gozatu' kanpaina antolatu dute maiatzaren lehen astebururako Baztan, Malerreka eta Bortzirieta Euskara Zerbitzuek, Malerreka-Langarra euskara taldeak eta Bortzirieta Euskara taldeak, Nafarroako Rural Kutxaren laguntzaz.

Maiatzaren 2an, larunbata, eguerdiko 12etan aurkezpena egiten da Narbarte BKZren egoitzan. 2etan bazkaria izanen dute (norberak berea eraman beharko du. 4etan natur kirol ezberdinak (piragua, eskalada, zaldiak, kainoi jaustea) aukeran izanen dute. 9etan afora BKZn eta gauez bideo emanaldia, solasal-diak, dantzak...

Igandean, aterpetxean gosaldia ondotik, rafting egiten izanen da. 2etan bazkaldu eta agurra. Izena emateko epea apirilaren 20tik 30era zabalduko da eta prezioa 7.300 pezetakoa da. Izen ematea eta informazioa Baztan (948 580006), Malerreka (948 451746) eta Bortzirieta (948 634125) Euskara Zerbitzuetan.

**IKUSMENAREN BERRESKURATZEA**

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

**GIHARRE ARAZOAK**

- Bixkortzea
- Artritis, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

## MAGNETISTA NATUROPATA

☎ (943) 62 30 55  
San Marcial, 7-4 IRUN

#### ONDORIOETATIK INDARTZEKO

- Diabetia
- Asma
- Larru azaleko alergia
- Buruko mina
- Zizareak
- Oinen izerdia
- Prostata, etab...

**KONTZULTA ORDUTEGIA**  
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

## Toldos BAZTAN, S.L.

TOLDOEN SALMENTA, ALOKAIRUA ETA KONPONKETA

- Kamioi eta industri-furgoneten errotulazioa (Errotulazio zerbitzua)
- Etxerako toldoak, eguzkitik babesteko (manualak edo elektrikoak)
- Toldo korrederoak
- Bolketeendako sareak
- Kamioiendako klase guzietako toldoak
- Pizkina estaltzeko sareak
- Trinkajetarako Slingak

Alkaiaga industrialdea, Baldrun 8  
**LESAKA** (Zalain industrialdearen ondoan)



Tel. 948. 63 10 03  
Mug.: 929 01 59 23

### ttipi-ttapa

6.900 harpidedun  
24.000 irakurle


Zure publizitatea  
etxe xoko  
guzietan

☎ 63 11 88

✓ «Orduko ingeniario batek ere ez zuen guk bezainbertze irabazten».

✓ «Bidasoa osoa pasatzen genuen gerritaraino urean, paketea bizkarrean genuela, eta galtzak lepotik hartuta ez bustitzeko».

✓ «Kazkabarra baldin bazen gustora ibiltzen ginen bidez-bide, orduan ez zen kuidadorik...»



Agustin Agirre  
eta  
Antonio  
Lazkanotegi



## KONTRABANDISTAK «ILARGI HAUNDIARI BELDURRA GENION»

### 2-4. KONTRABANDISTAK:

Gazte denboretan kontrabandoan aritu ziren bi beratarren lekukotasuna bildu dugu, garai batean kontrabandoa nola ulertu zuten eta herrietako bizitzan zer suposatu zuen aztertzeko.

### 5. KOIPUAK:

Arras ongi laketu dute arratoi itxurako hauek gure erreketan, nahiz eta adituen ustez ez dagoen sobera ugaltzeko arriskurik.

**10. SUTEAK:** «Suteak: bizitza eta heriotza mendian», Jesus GARITAZELAIA.


**12. ELKARRIZKETA:** Udan gure herrietara hurbiltzen diren turistei begira egin daitezkeen ekimen desberdinetaz mintzatu zaigu Altxata elkarteko Patxiku Irisarri etxalartarra.

## KONTRABANDISTAK

# «Ilargi haundiari beldurra genion»

**Kontrabandoari buruzko zenbat eta zenbat istorio ez ote diren aditu gure eskualdeko etxeetan, atautxi eta amautxik kontatuak, batez ere. Eltzetzuek emandako ikariak, igerian jakin gabe erreka guruztu beharra, pake-teen karga...**

**Guzti hori baino gehiago izan zen, ordea, gerra zibilaren ondoko kontrabandoa: garai hartako gosea arintzeko muga-herrietako gazteek sortu zuten ogibide ausarta, alegia.**



Antonio Lazkanotegi eta Agustin Agirre beratarrek kontrabandoan ibili ziren gazte-gaztetatik.

Kontrabandoa, estraperloa edo gaueko lana. Hiru izen horiek erranahi bera dute, baina hirugarren hori arras adierazgarria da kontrabandoa garai batean muga inguruko herrietan ententitu zuten bezala ententitzeko. Orain dela 40-50 urteko gazteentzat, izan ere, goizero fabrikara joatea bezain ohikoa baitzen gau beltza sartu orduko etxetik abiatu eta paketea bizkarrean hartuta muga gaintzea. Honek ez du erranahi, hala ere, fabrikara joatea bezain erraxa zenik, ezta guttiago ere. Hori bai, lantegian irabazten zen jornala irrigarria zen kontrabandoak ematen zuenaren aldean. «Paketea mugaraino eramateagatik 8 duro ematen ziguten, eta mugatik harat 1.000 libera (orduko hogeiduro). Orduan ingeniero batek ere ez zuen horrenbertze irabazten». Horrelaxe errandigu aurrean 78 urte eginen dituen Katalineko-bordako Anto-

nio Lazkanotegik. Beratar hau hamabi urte bertzerik ez zuela ibili zen lehen aldiz kontrabandoan —«behi izar bat ekarri genuen orduan»—, eta 22 urte luzez makina bat bidai egin zituen mugaren alde baretetik bertzera, ofizio gogor hau alde batera utzi eta artzain joatea erabaki zuen arte. 1954an alde egin zuen Ameriketara, 34 urte zituela.

Antioniorekin batera hamai-ka aldiz kontrabandoan ibilia da Agustin Agirre beratarra. Gaur egun 69 urte ditu, eta 16

**«Bilboko Altos Hornoserako motor bat ere ekarri niken behin. Ez zuken haundia, baino karga! Larogeita ez zekiat zenbat kilo!».**



urterekin hasi zen kontrabandoan. «36 urtetan esposu nintzen eta oraindik segitu nuen urte batzutan» dio.

### **Beharrak agintzen zuen**

Nahiz eta gazte franko lehenagotik hortan usatuak izan,

Espainiako gerra zibilaren ondoko urteak izan ziren kontrabando gehien ikusi zutenak. Izan ere, gosea arintzeko modu egokia bihurtu baitzen kontrabandoa, eta Iparraldetik ekarritako ogi zuri ederrak batek baino gehiagok izanen ditu oraindik gogoan, seguraski ere. Ekarrirako guziak ez ziren, ordea, beti hemen inguruko herrietan gelditzen. Behin muga pasatuta gauza aunitz eramaten zen Gipuzkoa aldera eta baita Bizkaiaraino, han ere behar gorria zuten eta. Antonio Lazkanotegik kontatzen duenez, jatekoek gain industriarako materiala ere garraiatzen zuten, «Bilboko Altos Hornoserako motor bat ere ekarri niken behin. Ez zuken haundia, baino karga! Larogeita ez zekiat zenbat kilo! Egin niken astokeririk haundiarena haretxe-

kin egin niken, bizkarra bi hibelare eta gehiago llogatua utzi zidaken. Jornala eman zia-ken bai ona, orduko hirutan hogeitamar duro, baino ederki irabazi nian!».

Hegotik iparrera kontserbak, txokoltea, espartzinak, kafea, ardoa zahagitan... eta Iparraldetik Hegoaldera, berriz, almen- drak, sakarina eta ogia hasieran, eta beranduago txatarra, kobrea, puntillak, despertadoreak... alde batean nahiz bestean eskas ziren produktuak, alegia. Denbora joan ahala, ordea, kontrabandoan pasatu beharrekoak aldatu egin ziren, arropak, puntillak, telebistak, eta tabakoak hartu zieten lekua behar-beharrezko janariei, eta Frantzia aldera estu eta larri ihesi joaki ziren portugaldarrak ere bai bolada batean.

### Egunez lan, gauzez ere bai

Bainan itzul gaitezen urte batzuk gibelerara, gaur egun ka-

**«Paketea mugaraino eramateagatik 8 duro ematen ziguten, eta mugatik barat 1.000 libera xabar (orduko hogeitamar duro). Orduko ingeniero batek ere ez zuen horrenbortze irabazten.**

sik ele-zahar bihurtu diren kontrabandista zahar haien tokian jarritz: egunez langile arrunt baten gisan eginen zituzten etxe-ko edota fabrikako lanak, bainan abisua hartu ezkerok gauez ere lana egin behar izaten zuten noiznahi. Arrats horietan, baserriko atarian begiak iluntasunera egin arte egon pixko bat, eta isiltasunean abiatzen

ziren muga aldera bidaxkaz-bidaxka. Bertze norbaitek ilunabar aldera gordetako lekuan esperoan izaten zuten karga. «Zakua buru gainean eramateko horrelako uhal bat itsekitzen zitzaion zakuari, eta hura ko-

petean paratzen zen, bi eskuak libre izateko» eta eltzetzuak al- toa eman ezkerok burua gibelerara bota eta kargaz libratzeko. Orduan eskapo joatea bertze aukerarik ez zuten izaten, tiro hotsen artean zenbaitetan. Nolanahi ere, ez zuten karga horren errex lurrera botatzen, eta ahal bazen karga eta guzi joanen ziren laisterka. «Aitzinean bat joaten zen eta besteak ondotik 100 bat metroko distantzian, portzikasore, eltzetzuak agertu ezkerok karga salbatzeko».

### Atsedenaldiak

Denbora haietan jende guziak jakiten zuten kontrabandokoferen berri, eta sekretuea konpartitzeak sortzen duen elkartasuna zen nagusi mugako herrietan. Atarian kontrabandis- tentzat ogi puska bat eta ardo

## Kontrabandistak eta eltzetzuak

Arras berezia da «eltzetzua» hitzaren jatorria. Horrela ezagutzen zituen mundu guziak muga inguruak kontrolatzen zituzten poliziak. Diotenez, bi eguntarako bidaltzen zituzten guardia bikoteak muga zaintzera. Bi egun horiek mendian pasatzeko eltze haundi batean eramaten omen zuten janaria, eta horrexegatik hasi zitzairen deitzen eltzetzuak eta... gaur arte.

Hona hemen eltzetzu eta kontrabandisten artean gertatutako zenbait pasadizo, Antonio Lazkanotegi eta Agustin Agirrek kontatuak:

- «ETAKoak gu izaten ginen orduan, gu ginuzten eurek kontrarioak. Kontrabandista harrapatzea subertu ezkerok paliza zen gero, eh! Paliza eta kartzela. Lista bat ere bazuten egina, ni han nintzen lista beltz hartan». A. Lazkanotegi

- «Ezkerreneko bordako Rafael Elgorriaga tiroz hil zuten eltzetzoek, 28 urterekin. Badakizu ze karga zuen? Bilboko klinika baterako operaziotako aparatuek». A. Lazkanotegi


- «Gure artean ilunpetan ezagutzeko, «tx!»ka ibiltzen ginen elkarrerri, edo bertzenaz, «nor da?» galde- tzen genuen. «Segi, segi» edo «etorri aisa» erantzuten zuten orduan, abudo ezagutzen baikenuen batak bertzea. Bertze hoietatik bat subertzen bazen, berriz, «nor da?» galdetu eta «que gorda ni que cojones» erra- ten zuten...» A. Agirre



## KONTRABANDISTAK

pixar bat uztea ohitura zen baserri aunitan, hatsa hartu bertean zerbait jan zezaten. Hala ere, baserrietan gelditzean bertakoak konprometitzeko arriskua zegoenez, mendian barna koadrila osoak atsedean egiteko leku batzuk izaten zituzten. «Han juntatzen ginen 15 eta 20 laguneko koadrilak mokadu bat jateko, geunek eramaten genuen gazta zahar bat eta ogi puska bat eta xahato ardoa eta fuera! Zerbait jan eta segi berriz ere».

Horrelako momentuek pixar bat xamurtzen zuten arren, **ARRAS**



latza izaten zen kontrabandistaren bizitza, eta Antoniok segurtatzen duenez, «mandoa hilko zuken gure tratuan ibili ezker».

### Eltzetzuak etsai...

Eltzetzuekin kontu haundiz ibili behar izaten zuten, mendian patruila batekin topo egin ezker karga eta okerrean bizi ere galtzeko arriskua baitzegoen. Horregatik, eguraldi zakarrenekin aisago ibiltzen ziren kontrabandistak, «kazkabarra baldin bazen ere gustora ibiltzen ginen bidez-bide, orduan ez zen kuidadorik», diote, «guk

«Pentsa zertarainoko beldurra izaten genuen, behin batek buzkerra bota eta bertzea paketea botata eskapo joan baitzen».

ilargi haundiari beldurra genion». «Pentsa zertarainoko beldurra izaten genuen, behin gibekekoak buzkerra bota eta bertzea paketea botata eskapo joan baitzen», gogoratzen du Agustinek irriz.

Eltzetzuak erosiak izaten zituzten maiz kontrabandistek, eta bidai horiek lasaixeagoak izaten ziren. Antonio eta Agustin, ordea, ez ziren erostearen aldekoak. «Eltzetzuei sosa emanta bi biaje egin nitian gehienez ere. Behin, eltzetzuek harrapatu eta Intzolako gainekalderaino joateko 12.000 Pta galdetu ziguten. Horrenbertze ez zuen balio, eta orduan erran nuen, "a bai? azkenekoa, ez da gehiago emanen sosik, akabo!". Eta zuzenean hala behar litzake, kontrabandoa kontrabandoa duk».

### ...Bidasoako urak ere bai

Errekako urari ere beldur haundia zioten kontrabandistek. Mendian barna, bidaxka guziak buruz ikasiak izaki, arazo haundirik gabe joaten baziren ere, bakar batek ere ez zekien igerian, eta ur haundiak heldu zirenean izaten ziren komeriak. Antoniok kontatzen duenez, «Bidaso osoa pasatzen genuen gerritaraino urean, paketea bizkarrean genuela, galtzak lepotik hartuta ez bustitzeko». Hori ez zen batere lan xamurra, pentsatzekoa denez. «Bertze aldean arropa jaunzteko denboran horma egiten zitzaien makilari. Ur barrenean ez zen horrelako hotzik, baina uraren mugan ebaki egiten zuela ematen zuen...» gaineratzen du Agustinek keinu adierazgarri bat eginez.

Ez ziren nolanhikoak izan kontrabandista zaharrek bizitu


zizuten garaiak, baina egogera politikoa eta soziala aldatuz joan den bezalaxe ogibide hori ere bilakatu egin da. Oinezko ibilaldi luzeak baztertu eta kamioiek hartu zuten bizkarka ibiltzearen lana.

Gaur egun oraindik zenbat gauza ez ote diren ibiliko mugaren alde batetik bertzeri. Europa batuaren mamua gain-gainean dagoen honetan, ordea, inoiz baino seguruago erraten ahal da kontrabandoa desagertzeko puntuan dagoela.

Kontrabandista zaharren aursardia gogoratzeko, urtero-urtero abuztu aldera egiten da Saran Kontrabandisten Lasterketa. 10 kiloko zama bizkarrean hartuta 9 kilometro egiten dituzte Larungo mazelerraino joan-itzulian. ■

## TENIENTEA KONTRABANDOAN

Teniente hark egiten zuen kontrabando ikaragarria. Puntillaz kargatutako kamionak-eta... bera jartzen zen txoferraren ondoan, eta Endarlatsan izaten baitzen kontrola, hark eeh! oihu egin eta pasatzen ziren... martxa! Bertze karabineroak enteratu ziren, ordea, eta "ese nos está jodiendo" pentsatu zuten. Berak nahi zuen lekura manejatzen zituen denak, baina Sarako mugatik hazi eta Beraraino zeuden guzkiek orduan bere kontrak elkar hartu zuten. Geroztik, bidea libre izateko, denak erosi behar izaten ziren, eta eurek elkar partitzen zuten sosa. Horrelaxe kontatu digute kontrabandista zahar hauek.



Agustin eta Antonio, honen baserriko atarian. Garai batean, hamaika ibilaldi abiatu zituen hortxe bertatik.

# Koipua, gure erreketan arras ongi laketu duen arratoi amerikarra

**Orain dela 15 bat urte Amaiur eta Urdazubi aldean ikusi ziren lehenbizikoz arratoi tzar hauek. Geroztik iduri du franko ongi laketu dutela hemengo erreketan, nahiz eta sobera ugaltzeko arriskurik ez duten ikusten adituek. Laborariek, berriz, ez dituzte batere begi onez ikusten, gustoko jana baitute baratzeetan harapatzen duten guztia.**



Metro bat luze eta 10 kiloko koipua ikusi izan dira.

Jatorriz hegoameriketakoak dira koipua, Argentina aldekoak, hain xuxen ere. Sabalaldeko larrua hagitz preziatua dutela-eta, Lapurdi eta Landetako zenbait haztegi-tara ekarri zituzten duela 30 bat urte. Handik ihes egiten duten gutti batzuk hedatu eta Txingudin barna Bidasoarat ailegatu ziren aski abudo. Gaur egun, Txingudin bertan dago inguruko koipu multzorik haundiena, gordeleku aunitz, ur mantsoak eta baratzeak nahi haina izaki, arras bizileku ona topatu baitute han.

Baztan aldeko erreketan ere nabaria izan da koipuen ugalketa. Batez ere negu epela josten denean somatzen dira kalteak baratzeetan, orduan gehia-

go umatzen baitira koipua. Hotza da koipuaren etsai nagusia. Hotza eta nekazari-erparen dituzten arteak.

Mikel Mugiro biologo arizkundarrak adierazi digunez, «franko ongi laketu dute hemen, nahiz eta koipuendako leku onak guti izan. Hala ere, ez dira inoiz ere gehiegi izatera ailegatu, jendeak baratzeetan kalteak sumatu dituelarik akabatu egin dituelako normalean. Horrek mugatu egin du koipuen populazioa».

## Eragin gutti

Momentuz, baratzeetan

egindako kalteak eta batek baino gehiagok horrelako arratoi puska ikustean hartu duen ikaria kenduta, erran daiteke era-

gin gutti izan dutela koipuek inguru honetan. «Erreka bazterretako jatekoarekin aski baldin badute ez dira sartzen baratzeetan. Amaiur aldean soroetan sartu izan dira, baina kalteak ez dira ikaragarriak» dio Mikelek, «hauen eragina haundiagoa izanen litzateke aintzira batean edo leku naturalean sartu ezker. Hor bai, ikaragarri umatuko liratekeen, eta hango landaretza guztia janen lukete. Hemen erreka bazterretan nola soroak diren, ez da horrelako eraginik sumatzen, nik uste» gaineratzen du.

Erreketan bizi diren bertze espezieen gainean ere ez omen du inolako eragin txarrik izaten ahal koipua, erabat berlarjaleak baitira. Igarabek, adibidez, koipu kumeak jan egiten dituzte hainbatetan. ■

*«Franko ongi laketu dute hemen, nahiz eta koipuendako leku onak guti izan. Hala ere, ez dira inoiz ere gehiegi izatera ailegatu, jendeak baratzeetan kalteak sumatu dituelarik akabatu egin dituelako.»*



## Noizbait Belateko muga gainditu ezker arazo bihurtuko lirateke

Nahiz eta uretik kanpo koipua animalia baldarra den, Bidasoa aldera pasatzeko mendian barna ikusi izan dituztela erran digu Mikel Mugiro biologoak. «Guk Bertzen ikusi izan ditugu gauzez, Aizkolegitik hurbil, hango pagadian, Bidaso aldera pasten». Pasa edo migrazio horietarako oihanetatik ibiltzen direla segurtatzen ahal da beraz, nahiz eta harrigarria suertatu.

Bidasoatik Ultzama aldera, aldiz, ez dira pasatu, Belaten hotza soberaxko egiten duela koipuendako. Noizbait Belateko muga hori gainditu ezker koipua arazo bihurtuko liratekeela uste du Mikelek, «eguraldia epelagoa baita han eta bertako soroetan jatekoa nahi haina harapatuko bailukete». Orduan kezkatzen hasi beharko genuke. Bitartean...



● Beren larrua arras preziatua dela-eta, hainbat koipu-haztegi jarri zituzten Lapurdi. Handik ihes egin eta aski abudo hedatu ziren Txingudira ailegatu arte. Bidasoa eta Baztan erreketan bizileku egokia topatu dute geroztik.

## ESTATISTIKA



### 749 langabetu erregistratu dira Doneztebeko INEMean urtarrilean

Doneztebeko INEMeko bulegoetan hartutako datuek adierazten dutenez, 26 pertsonak eman dute izena aurtengo urtarrilean zehar, 749raino goratuz eskualdeko langabetuen kopurua.

Nafarroa osoan ere goiti egin zuen langabeziak, abenduan baino 113 pertsona gehiago baitziren INEMean apuntatuta. Horrela, 226.800 pertsonako biztanleria aktiboaren artean, %10,45a dago langabezian, guztira 23.709 pertsona. Hoietatik 11.700, erdia kasik, 25 urte baino gehiagoko emakumeak dira.

## IKASTOLAK



### Urruñan ikastola eraikitzeko 1.000 harri behar dituzte

Gaur egun 30 haur inguru biltzen dituen Urruñako ikastolaren lokalak guttienezko baldintzak betetzen ez dituzenez, aterbe berria eraikitzeko proiektua jarri dute abian. Orain hasita, iraila alderako bukatuko dute ikastola berria, bainan gastuei (1.200.000 libera/30 milioi Pta) aurre egiteko gurasoen sustengua ez dute aski.

Hori dela eta, ikastolaren aitzin-pareta osatuko duten 1.000 harriak salgai paratu dituzte sinbolikoki, 400 libera edo 10.000 ptatan bakoitza. Harri horietako bat erosiz Urruñako ikastolari laguntza ematen dion orok aukera izanen du Tenerifera bidai baten zozketan parte hartzeko.

## BERTSOLARITZA



### Aurtengo egitasmoen berri eman du Bertsozale Elkarteak

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak 1997an egin-dakoen balorazioa eta 1998rako dituen asmoak agertu ditu Bertsozalea aldizkariaren 4. zenbakian. Nafarroako egitasmoei dagokienez, berriki egin den txapelketa iritsi ez den tokietan zenbait bertso saio antolatuko direla segurtatzen du Joxema Leiza koordinatzaileak, hala nola, Bortzirietan, Tafallan, Sakanan, Luzaiden eta Larraunen. Bertsolari gazteentzako saioak eta DBHko ikasleentzat materiala prestatzen ere lan egingen dute.

## Arrantza denboraldirako arauak finkatu dituzte

Hauk dira Nafarroako Gobernuaren araudiaren arabera, 1998ko denboraldian zehar Nafarroako erreketan arrantzatutako ahalko diren arrain espezieak: Aingira, izokina, ohiko amuarraina, ortzadar-amuarraina, xarboa, txipa... eta mendialde honetan bizi ez diren bertze arrain batzuk ere bai; lutxoa, adibidez.

### Izokin arrantza

Urtero bezala, Martxoko hirugarren igandean abiatu da, eta 75. alea harrapatzerakoan bukatutzat emanen da epea. Horrenbertze izokin ez bada arrantzatzen uztailearen 20a izanen da muga eguna. Bertzalde, goizeko 7etatik ilunabarreko 9,30ak arte aritzen ahalko da martxoa eta apirilean, eta 2 ordu gehiagoz maiatza, ekaina eta uztailean.

Astearteetan debekatua izanen da izokin arrantzan aritzea, besta eguna ez bada bederen. Bertze arrantzaleren bat txanda esperoan baldin badago 20 minutu baino gehiago ezin da toki berean egon. Azkenik, izokina ateri ezkerro -egunean izokin bat baino gehiago arrantzatzea galerazia da -40 zentimetro baino gehiago neurtzea izan behar da kontuan eta ale bakoitzak Diputazioko zaintzailearen ziurtagiria eraman behar du aldean. Dagoeneko uma-

tuak diren izokinik ezingo da arrantzatu, bertzetik.

### Gainerako espezieak

Eguzkia agertu baino ordubete lehenagotik hasten ahal da izokina ez den bertze edozein espezie arrantzatzen, eta ilundu ondotik ere bertze ordubetez. Izokin arrantza zabal-tzen den egun berean ideki da amuarrainena ere, martxoaren 22an alegia, eta abuztuaren 31 arte luzatuko da.

Ekainaren 30a bitartean 5 ale harrapatu ahalgo dira egunean, eta hortik aitzinera 3 gehienez ere. Foru Agindu honekin oroitarazi nahi izan dute, bidebatez, 21 zentimetroko neurria ailegatzen ez diren amuarrainak errekarra itzuli beharko direla nahitaez. Errekastoetan, berriz, 19 zentimetrokoa izanen da amuarrainen guttienezko neurria.

Arrantzarako erabiltzen diren amuzkiei dagokienez ere zenbait debeku jakinarazi dute: bertakoak ez diren zizare edo ninfak baliatzea; arrain hilak edo biziak amuzki gisa erabiltzea; urak beitatzea arrainak erakartzeko.

Arrantzaleen artean jakina denez, Bidasoa ibaiko zati batzutan debekatua dago beita naturalak erabiltzea maitzaren 31 bitartean, egun horretan barne.

### PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK

#### ZERRIKUMEA

\* 20 Kilokoa




Urtarrila Otsaila Martxoa Apirila Maiatza Ekaina Uztaile Abuztua Iraila Urria Azaroa Abendua

Azkeneko joera

#### ZERRI GIZENA

\* 95-100 kilo artean Pta./K.



Urtarrila Otsaila Martxoa Apirila Maiatza Ekaina Uztaile Abuztua Iraila Urria Azaroa Abendua


Azkeneko joera



# Euskalkien mapa berria

Zuazoren sailkapenaren arabera, hiru euskalki desberdin ditugu eskualdean

**Luis Luziano Bonaparte hizkuntzalari ingelesak 1869an egindako sailkapena zen orain arte euskalkiei buruz zegoen erreferentzia bakarra. Ordutik honat sailkapen berriak egin dira, eta horietako bat da EHUko irakaslea den Koldo Zuazoren mapan ageri dena. Eskualdeari dagokionez, hiru euskalki desberdin mintzatzen direla ikus dezakegu.**



Bonapartek euskalkien mapa osatu zuenean, besteak beste, ez zen oraino sortua euskara batua. Geroztik euskalkien arteko tartea ttititu egin dela garbi dago, eta ez hori bakarrik, zortzi euskalki izatetik seira murriztu baitira, Zuazoren sailkapenean ikusten denez. Iparraldean, errate batera, bi euskalki bereizi ditu soilik, nafar-lapurtera eta zuberera. Berak dionez, «zubererak nortasun apartekoa du. Lapurdi eta Nafarroa Behereko euskalkien artean, berriz, ez dut eten garbirik ikusten inon. Hori guzti

hori eremu berean sartzen dut». Hegoaldean, berriz, lau: mendebala, erdialdea, nafarrera eta sortaldeko nafarrera. Azken hau, ordea, desagertzeko bidean da, erronkaria galdu da eta zaraitzua zenbait xaharrek bakarrik mintzatzen dute.

Bertalde, Nafarroako eremu zabalenean hitz egiten den hizkerari deitu dio nafarrera. Hala ere, erdialdeko hizkerare-

kin duen parekotasunagatik, zail egin omen zaio Nafarroako zenbait tokitako euskara sailkatzea. «Gauzak ez dira matematikoak, eta bai Bortzirietan, Malerrekan, Goizuetan eta baita Sakanan ere, ezin da esan argi eta garbi euskara bat edo bestea egiten den. Hor tarteko hizkerak dira, Erdialdeko eremuaren eta euskara nafarraren artean daudenak».


## Hiru euskalki zonaldean

Ikus dezagun gure zonaldean solasten den hizkerari buruz Zuazo hizkuntzalariak egiten duen analisia. Batetik, Leizor, Arano eta inguru hori Erdialdeko eremuan sartzen du, hau da, gipuzkeraren barnean.

Sara eta Senpere lapurtera mintzatzen da eta Baztan eta Bertizaranan, berriz, nafarrera. Bonapartek XIX. mende hondarrean Irun, Oreteta eta baita Donostialdean goinafarrera mintzatzen zela zioen, baina gaur egun begibistakoa da hori ez dela horrela.

Salbuespen bat Urdazubi eta Zugarramurdiko kasuak lirateke, hegoaldeko herriak izanda ere, arras atxikiak baitaude Iparraldeko hizkerari. Herri horietako gazteek etorkizunean mintzatu-ko duten euskarari begiratu beharko omen zaio, egoera alda baitaiteke.

### ABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK •



Azkeneko joera



Azkeneko joera

### ERLEAK



#### Akabo baserleak

Orain dela zortzi bat urte Java irlatik ekarritako akaro batek bortizki erasotu zituen hemengo erlauntzak, denbora guttian baserle guztiak desagertariz. Akaro honek jotako erleak ahulduz joaten ziren poliki-poliki, hil arte. Gizakiak propio tratatu zituen erlauntzetan bizi ziren erleak soilik libratu ziren barroaren –halaxe izena baitu akaro horrek– hatzaparretatik, baina ez denak, ordea, tratamendu egokia jaso ez zutenak ere galdu egin baitziren. Gaur egun teiltatuetan edo arbolen batean agertzen zaizkigun erle horiek, beraz, ez dira baserleak, erlauntza berezietatik ihes egindako erleak baizik. Baserleen krisialdiak ondorio latzak ekar ditzake ekosisteman, intsektuek burutzen duten polinizazioaren %90a erleen lana baitzen.

## BERA'TAR NESKA NEVADA'N

**Oso ederra arkitzen dugu Bera'tar neska baten ipuia Ipar-ameriketako sartaldean, euskal artzaien artean, XX'garren gizaldiaren asieran. Nor dugu neska au? Fabiana Zugaramurdi Migelperizena du izena.**

Bera'ko baserri baztertuenetakoan jaiotzen da, Meaka'n ain zuzen, Garaitarrak auzoan, 1886'garren urtean Abenduaren 21'tean. Txikia zelarik sendia Ugainborda baserrira aldatu zen, Suspela auzora. Etxe kaxkar onetara aldatu ziren. Martin Zugaramurdi ta Modesta Migelperizena gurasoen izenak ziren. Bederatzi senide; Maria, Juana, Martin Jose, Fabiana, Mikaela, Mariano, Graziano, Fermin eta Jose.

Fabiana lanera dijoa neskame bezala Tippiotxera. Or bi urte egiten ditu.

Bera'tik Donibane-Lohitzun'era dijoa neskame, Biarritz'eko sukaldari aundi batengana. Etxekoandrea oso gogorra izan zen Fabiana'rekin. Etxe onetan sukaldaritzak ikasi zuen oso ondo.

Or Ipar-Ameriketara joateko asmotan dabil, baita ortarako dirua aurrezkitzen dabil. Ez dijoa bakarrik, Bera'tar Zeledonia adiskidearekin baizik. Zeledonia Ameriketara Baigorri'ko artzai batekin ezkonduko da.

### Ipar-Ameriketa'runtz

1912'garren urtean "ROCHAMBEAU" URONTZIA New York'eraño artzen du Bordelen, Zeledonia bere adiskidearekin New York'tik bereala trena artzen du Renora (Nevada'n). Lau egun bear dire trenez ibilliardia egiteko.

Reno'n euskaletxera dijoa laguntza eske, batez ere lana billatzeko. Reno'n, Indartenea arrotzetxean lana arkitzen du. Etxekoandrea, Mariana Indart da, Baigorri'tarra. Ortzen igaro zituen lanean zortzi illabete. Asko maite zuten sukaldari ona zelako eta neska garbia.

Ortzen irabazten du diru ederra eta ipar-Ameriketara etortzeko urontziaren txartelak bidaltzen dizkie iru anai gaztenei, Graziano, Fermin eta Jose'ri.

### Ezkontza

Indartenea arrotzetxetik barrena, euskal artzai anitz zebiltzen. Reno'ra zetozen janaria berritzera. Batez ere ortzak berritu bearak zituzten. Eskorbuto izeneko gaitza zen etsaia. Mendian artzai zeudela, ez barazkirik, ez igaliarik eta ortzak galtzen zituzten.

Indartenea arrotzetxera zetozen baita ere bi anai, artzaiak, Peio eta Pierre Iriart, Baigorri'tarrak, Arginania etxean jaiokak, Etxaune'ko auzokoak. Bata amazpi urtekin eta bertzea emeretzki urtekin etorri ziren

Ameriketara. Orduan Ameriketara artzaien bear aundia zegoen. Osaba batek ekarri zuten. Garai txarrak ziren. Nagusiek gaizki ordaintzen zituzten. Banko anitz ere lur jota zeuden. Bi anaiak, emen eta an ardiak bazkatzen berrogei millako artaldea osatu zuten.

Bizpauru lagunuen artean rantxo aundi bat erostera ausartu ziren. Rantxoaren izena: "THE SMOCK CREEK RANCH", Nevada'ko estatuan, Nafarroa erdia bezin aundia.

Rantxoaren nagusi berriak: bi anai Iriart (Peio ta Pierre), bi anai Poko etxeokak Baigorri'tarrak (Joanes ta Peio), Duk anaiak

Xiberotarrak ta idazkari alemana Wolf.

Peio Iriart, 1865'garren urtean jaiotzen zen Baigorri'n. 1882'garren urtean Ameriketara etorri zen. 1929'garren urtean iltzen da irurogeitalau urtekin. 1913'garren urtean Fabiana Zugaramurdi'rekin ezkontzen da.

Nola egin zen ezkontza? Peio artzai, mutil zar aberatsa zen, rantxoaren nagusitan aundienetakoa. Berrogeitazortzi urte zituen. Indarteneko arrotzetxeko etxeokandriari erran zion: "Neska garbi langille bat ikusten ba duzu, deitu".

Fabiana etxe ortara, neskame izateko agertu zenean, etxeokandreak erran zion: "Fabiana, ezkondu bearko duzu?". "Nola etorri zera oneraño?", jarraitu zuen. Bera'tar neskamearen erantzuna auxe izan zen: "Ameriketara joan bear nuela ta an mutil zar aberatsa batekin ezkondu sartu zitzaizdan buruan. Bera'n nere gizongaia oskiña zen. Elkar maite genuen. Egun batean ne-



Fabiana Zugaramurdi Migelperizena bere familiarekin ateratako argazki batean.

re ingurura begiratuta auxe esan nuen, -gazteak gera, seme-alaba anitz izango ditugu. Gogor egiten zitzaidan pentsatzea aurrek ogi puxka galdetuko zidatela eta nik ezin eman". Etxeko andrea ixildu zen eta gero jarraitu: "Urtean bein dator onera gizon langille ta aberatsa. Orixe da ona zuretzat". Elkar ezagutu zuten, baita ezkontza erabaki: Reno'n Santo Thomas elizan ezkondu ziren 1913'garren urtean. Zibil ezkontza Washon egin zuten. Elkar ezagutu ta zortzi illabete geroago ezkontza egia.

## Rantxoan bizitza

"The smock creek rantx" Nafarroaren erdia bezin aundia zen. Egurrezko bizpauru etxe erdian, bordak bazterretan eta oialetxeak artaldeetan zebiltzan artzaientzat.

Fabiana erdiko etxean bizi zen, senarra zaintzen eta aurak azitzen. Antxen jaio zen Laurant 1914'garren urtean. Ia iru eguneko zaldi-gurdia egin zuen Reno'ko gaxotegiraño aurra an emateko. Urrango aurra 1915'garren urtean izan zuen, gazterik il zena. 1917'garren urtean Ivonne jaio zen.

Fabiana'k artzen zituen ikusleak, eta etorkiak, gañera gaxoak zaintzen zituen.

Jon Laxalt Gobernadorearen aita, Ameriketara etorri berria Fabiana'ren ate joka agertu zitzaion. Fabiana'k erran zion: "Zaude emen gurekin". Orain dela ogeitabortz urte gizon ospetsu au Euskalerrira bere sendiarekin etorri zela, Fabiana agurtzera urbildu zitzaion. Jon'ek negarrez ala zion: "Ez dakizute nolako zorrak dauzkaten Fabianarekin". Jon'en emazteak erantzun: "Zer ari zerete aurak bezala". Jon Laxalt'en erantzuna: "Fabiana'k laketu ninduen, emen, Ameriketan".

Rantxoa lan toki gogorra zen: 50 morroi, 60 artzai, 80.000 ardi, 4.000 behi, 4.000 zaldi. Artalde bakotxean 1.500 ardi zeuden, iru artzai-zakur ta astoa. "Kanperoa" illero mendira zijoan artzaiengana janariarekin. Belaretarako Indioak, sendi osoak zetozen lanera. Nagusiarekin oso ongi konpontzen ziren.

Gizaldi ontako guda aundia sortu zanean, Frantzia Alemania'ren aurka, Peio Iriart'ek Frantzia'ko jaurlaritzari 500 bei opa zizkion.

Rantxo onetan, Nevada'n Fabiana'ren sendia ta artzai geienak euskaraz mintzatzzen ziren beren artean.

## Rantxoaren saltzea

Aurak azitzen zijoaztela bertze giro baten billa zebiltzen. Nunbai Fabiana aurren eziketa on baten bearra ikusten zuen. Asmatu ta egin.

1917'garren urtean saldu zuten rantxoa banko bateri. Ez dakigu zenbatean saldu zuten. Salduta bereala irira joan ziren bizitzera, Reno'ra ain zuzen. Bi urte egin zituzten Reno'n eta Anderson'en etxean bizitu ziren. Laurent inglesa ikasten ibilli zen.

Reno etzitzaien atsegin bizitzeko ta andik San Frantzisko'ra Kalifornia'n aldatu ziren. Iri onetan sei illabete egin zituzten. Azkenean Euskalerrira joatea erabaki zuten.

Trenez New York'era joan ziren.

## Euskalerrira

Etixeruntz ibillialdia "ADRIATIK" urontzian egin zuten. Itsasora ateratzeko itxoin bearra. Langilleak kaian lanuzteari eutsi zioten.

Azkenean urontzi itsasora atera zen eta Halifax iriaren bidea artu zuen. Andik Southampton'era Ingalaterran eta gero Chesburg'era Frantzia'n. Trenez Paris'ko bidea artu zuten. Paris'en pardelak etorri arte Hotelan zortzi egun egin zituzten itxoinen.

Paris'tik zuzenean Baigorri'ra hotelera joan ziren. An senar-emazteak erabaki zuten bien jaiotetzeko erriak elkarrekin ikustea eta gero erri bat aukeratzea beren egoitza osateko.

1919'garren urtean Bera'ra joan ziren, amaren errira. Orduan an zegoen Fabiana'ren ama bizitzen, Saniunea delako etxean. Errazu'ko Toribio'k eraman zituen zaldigurdiarekin. Fabiana zapel zabalarekin agertu zen Bera'n. Beratarak arrituta begiratu zioten.

Azkenean Donibane Garazi izan zen bizitzeko aukeratutako erria.

Euskalerrian euki zituzten beste bi aur: 1920'garren urtean Reneau ta 1925'garren urtean Prosper.

Fabiana Donibane-Garazi'n, iri berexi orretan bizitu zen bere senar eta bortz seme alabekin.

Senarra, Peio Iriart Garazi'n il zen 1929'garren urtean. Irurogeitalau urte zituen; ogeitaemeretzi urte Ipar-Ameriketan egona, bere bizitza geiena Nevada'n.

Fabiana berriz, Garazi'n il zen 1979'garren urtean; larogeita amairu urte zituen.

Berri jakin bearra lortu dugu, argitasun aundikoa edestiarentzat. Ez dugu jakin zenbatian saldu zuten Nevada'ko rantxoa baina sendiak erran digu zenbat diru ekarri zuten Ameriketatik: milloi bat urrezko dolarretan. Bizitzeko jauregi ederra NEVADA izenekoa altxa zuten Garazi'n.

Bertze berri arrigarri bat eman nai dugu: 1931'garren urtean ikusten duen ustekabea Fabiana'k Lourdes'ko arpean ototzetez zegoela Mariana Indart Reno'n arrotz etxeko Baigorri'tar etxekoandrea. Neurririk gabeko zorientasuna arkitzen zuten, baita eten gabeko solasaldia.

## Euskaldunak Nevada'ko estatua indartzen

Garbi dago, orrelako gizonak egin dutela Nevada'ko Estaduaren edestia ta indarra: 39 urte lanean, sasoirik onenean. Fabiana berriz senarrari lagundu, seme-alabak zaindu, auzokoak bildu.

Artzai geienak, euskaldunak izaki Nevada'n eta lurralde basamortu arretan bizi bear. Lur gogor aietan millaka ardi sartu zituzten, gero jatetxeak, euskaletxeak. Lanik zallenen euskaldunek egiten zituzten. Bertako gizasemeak oso goien jartzen zituzten euskaldunak... Ba zekiten euskaldunekin beiak saltzeko paperik ez zutela bear. Orrelako egunean, alako tokian izango zirala erraten ba zuten, ba zekiten aurretik gauzak ala joango zirala. Euskaldunen itzak zeukan indarra.

Ori dena ez dugu guk bakarrik erraten. Berri oiek edo berdintsuak ematen dizkigu Nevada'ri buruz idatzitako liburu mardul batek, "The Golden Fleece in Nevada, by Clel. Georgetta, 1972" (564 or.). Ala dio 561'garren orrialdean: "1890'garren urtearen inguruan etorri ziren Nevada'ra euskaldunak Pirineo inguruko lurraldetik. Nunbait denak aitortzen dute aiek zirela langillerik onenak".

Liburu orretan utsune aundi bat arkitzen dugu. Oso euskaldun guti daude aipatuak. Euskaldunen lanak ziren aundienetakoak Estaduaren aurrerapenerako, baita ekonomia-erantzutak eta zoritxarrez euskaldunen izen gutti agertzen dire liburu orretan. Izen geienak amerikanoak dire. Orrek erran nai digu idazleak paperak ingelesez erabiliak eskuartearen zitula eta berriak ingelesez jaso zitula. Ez daki euskaraz eta ango euskaldunak ez dakite ingelesez geienek.

Euskaldunentzat itzak zeukan indarra ta egitazko araua. Paperetan agertzeko berriz bertako gizasemeak aukeratzen zituzten, baita arpegia emateko agintarien aurrean. Euskaldunentzat itza naiko bainan paperetan bertako gizonen izenak gelditzen ziren. Nahiz paperetan izen batzuek ageri, nagusiak besteak izaki, lanean zebiltzanak eta diruaren jabe zirenak. Edestia ingelesez egiten zuten baina bizitza euskaraz. Euskaldunen gertakizunak euskaraz egitea bidezkoa deritzaigu.

Naitanaieze euskaraz ere osatu beharko dugu NEVADA'KO edestia. Euskaldunen jokabideak noizbait bildu bearko ditugu. Bidezkoa euskaldunen berriak euskaraz ematea. Gure izkuntza zarra ori erabiliz askoz geiago azaltzen dugu ta obeki gure nortasuna. Baita ere bide egokia da euskaldunen ekintzak agertzeko eta ezagutu arazteko.

Orrela edestiak obeto zainduko du egia.

Nevada'n berriz bertako edestia obeto ezagutzeko, berri billa, an egon ziren euskaldunenak jakiteko, etorri bearko dute Euskalerrirat.

Euskaldunen berriak euskaraz ematen ditugula urrun begira gabiltz.

LATXAGA

OHARRA: Egileak hala eskatuta, berak idatzi bezalaxe argitaratu da

## OIHANGINTZA



Suhiltzaileek lan handia izaten dute urteko sasoi honetan.

## Suteak: bizitza eta heriotza mendian

**Neguaeren bukaerak sugar eta ke-lainoak dakartzak mendietara urtero bezala. Plantazio eta basoen etorkizunagatik kezka sortu da berriz ere. Sute eta sute artean gogotarako asti pixka bat hartu beharra dago.**

Suhiltzaileen autoek umeentzat erakargarritasun berexia dute: kolore deigarriak, forma araroak, sirenak, argiak... bainan neretzat, dararmaten kartela da harrigarria: "suhiltzaileak". Bertze hizkuntzatan aski izen desberdinak dararmatzate, sua moteltzeko (itzali) erabiltzen dituzten tresnetatik heldu direnak zenbaitetan (sapeurs sape -pala edo pikatxoia- hitzetik frantsesez, bomberos bomba hitzetik espainolez...). Gure errepedetatik auto gorri bat pa-

satzen ikusten dudanean, bertan pertsona talde bat imaginatzen dut, bizirik dagoen izaki mitologiko bat, sua, hiltzeko eginkizun sakratuarekin, haren bizi-indarra inguruan heriotza eraiten hasten denean.

### Sua, izaki biziduna

Denbora luzean artzaiarentzako bizitza izan da sua. Duela milaka urte gutti batzuk gure mendietara bagoak ailegatu baino lehen, larreak egoera onean mantentzeko ardura zuten jendeek sua erabiltzen zuten. Hauek langile onak ziren: laborantzarako bide berrak ideki eta ganaduak gehien maite dituen landareentzat lurra garbitzen zuten. Garaiko goitekologia zen; ez da harritzekoa izaki bizidun bezala haintzat hartzea. Batzuetan, izaki mitologiko guzien gisan, matxinatu eta mendeku hartzen zuten. Sute haundiek kalte larriak eragin di-

*Sua gure tradizio-rik sakonetakoaren zati bat da. Ez soilik bere besta-giro itxuran (udako solstizioko suetan bezala), laneko erreminta gisa ere bai, artzaintzat suteak izan diren bezala*



tuzte, etxeak erre eta jendea hil. Duela denbora gutti ikusi dugu erreazio ikusgarri eta bortitz horietaz gain, sua pixkanaka-pixkanaka ixilean mendeku hartuz joan dela.

### Sua, lan erreminta

Klima beretsuko bertze lur batzuren aldean gure mendiak pobre xamarrak direla onartu behar dugu. Suteen ondorioz lurra pobretuz jo-

## BARATZE XOKOA



### GOMENDIOAK

#### Zorriak berriz ere!

Izurritea garaz hartzen bada, aski erraxa da xomorro gogaikarri hau hiltzea. Insektizidekin berehala hilko ditugu. Batzuk, xomorroa ukitzerakoan hiltzen dituzte edo bertzenaz, xomorroak hostoa jaten duelarik. Bertze batzuk, berriz, sulfatadorekin botatzen diren insektizidekin gertatzen den bezala, landarearen barrena sartzen dira eta zorriak landarea xurgatzen dutenean hiltzen dira.

Insektizidekin kontuz ibili behar da, hala ere. Zenbaitetan bota dugun produktua landarearen barrenean dago eta garbitu arren produktua jan dezakegu afaltzeko. Hori ez gertatzeko, begiratu botikan jartzen duen kontsumo epeari. Normalean hamabost egun espetu behar izaten da insektizidak bota eta kontsumitu bitartean.

Bertze sistema bat honako hau duzu: ur litro batean bi xaboi (eskama) kuxare eta bertze bi 90ºko alkohola bota eta ongi sulfatatu. Izurritea haundia baldin bada, 3 edo 4 zigarro mutur (nikotina dutelako) baso erdi urean mazeratzen utzi, eta arestiko nahasketari erantsiko diogu. Erran bezala erretzari nikotina gehitu ezker, lorategian erabili bakar-bakarrik, baratzean inoiz ere ez, hagitz toxikoa baita nikotina.

an dira ohar-kabeak. Baso haundiak izan zitezke-

en lekuan sasiak edo indar guttiko arbolak bertzerik ez daude.

Sua gure tradizio-rik sakonetakoaren zati bat da. Ez soilik bere besta-giro itxuran (udako solstizioko suetan bezala), lanerako erreminta gisa ere bai, artzaintzat suteak izan diren bezala. Lurraren aberastasuna ateratzen utzi digu bizitzeko. Bainan bizirauteko azken belar izpia probextea lehen bezain be-

harrezkoa ez den garai hauetan, zentzuzko eta zuhurra da lurra atsedean hartzen uztea.

Tradizio sakon guziekin gertatzen den bezalaxe, ez da erraxa artzaintzat erretzez uztea. Tradizioak zenbaitetan jarraitu egiten dira bizitzeko beharrezkoak izan ez arren. Eta hau kaltegarria da. Etorkizunean lurraren baliabide guztiak behar baditugu, orain emandako atsedendiarengatik sarituak izanen gara.

## EGUTEGIA Apirila-ekaina

### BARATZEAN

#### 1.- Erein

• Azenarioak, perrexila, erremolatxa, kalabazinak, lekak, letxuak...

#### 2.- Landatu

• Piperrak, tomateak, azak, berenjenak, bruselasko azak, letxuak...

### LORATEGIAN

#### 1.- Erein

• Urteko haziak (reina margarita, amapolak...) Bi urtekoak: Aleliak, lunariak...

#### 2.- Landatu

• Gladioloak, daliak, tageteak, petuniak, geranioak...

## UDAKO BARAZKIAK

Beren koloreekin baratzea eta mahaia alaitzen dute. Barazkiez gain ezkia (tomilloa), albahaca, zilandroa, tipulina, hinojua, perrexila eta gisa horretako landareekin udako mahaia aberastuko duzu. Haziak ereiterakoan kontutan hartu zein barietate botatzen duzun, merkaturatutako salgai daudenen artean gure klimarako egokiak ez diren haziak ere baitaude.

### BELARRAK:

Usai eta zapore goxoak izaten dituzte, gainera bitaminak eta holigoelementuak dituzte. Perrexilari sortzea kosta egiten zaio baina ez galdu esperantza. Perifolloan hostoak 25 eta 30 egunen tartean agertzen dira. Salbiaren hostoak digestio ona egiteko erabiltzen dira. Tipulinarenak (buru gabeko tipularen gisakoa) ere bai, eta uda osoan biltzen dira.

### AROMATIKOAK:

Ez dira inoiz faltatu behar, leku eguzkitsu eta haizeaz babestua dagoen toki batean landatu, lurra ongi jorratua eta aberatsa behar dute. Erromeroa, tomilloa, albahaca, eneldo, estragon, menta edo zilandroa dira ezinbestekoak. Bere zeluletan beharrezko diren olioak eta aroma konposatuak gosea egin eta digestio on baterako balio dute.

### BARAZKIAK:

Tipula forma aunitz daude, batzuetan burua da preziatuena eta bertze batzuetan, berriz, hostoak. Gaur egun urte osoan kontzen ahal dira baratzean. Tipula xuri ederrak nahi izanez gero abuztuan erein eta neguan egiten dira -kontutan hartu -10%ko tenperatura ez dutela aguantatzen-. Maiatzean ateratzeko moduan egonen dira.

## Langileen formakuntza diruz laguntzeko programa

Gure eremuaren zati bat barne hartzen duen 5b helburu zonaldean, nekazal-elikadura industria sektorean lan egiten dutenen formakuntza diruz laguntzeko programa atera du Nekazaritza, Abeltzantza eta Elikadura Departamentuak. Neurri hauetara egokitu nahi duten enpresek langileen formakuntza planak aurkeztu beharko dizkiote Nafarroako Gobernuari, eta honek gastuen % 80a hartuko omen du bere gain. Arestian aipatu dugun 5b zonaldeko enpresaren batek,

antolakuntza arazoak edo berte edozein arrazoi tarteko, ezingo balu berezko formakuntza planik gauzatu, ITGren Formakuntza Sekzioak hainbat ikastaro prestatu ditu urte honetarako. Hoiere artean, Internet, informatika, hizkuntza desberdinak... Sektore zehatzagoetan lan egiten duen jendeari begira, ordea, berte zerbait kurso planteatu dituzte, hala nola, garraioa, harrera, kupelategi, okindegi, kooperatibak eta zereal gordailuak, harategiak eta begetal kontserbak.

## DIRULAGUNTZAK

Informazio gehiago: CARREFOUR NIREA © 210018

Baztan © 580561 Bortziriak-Malerreka © 451654 Leitza © 510009



### ABELTZANTZA

#### Proiektu edo inbertsiorik egiten duen edozein pertsona fisiko edo juidirikorendako.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 90. zenbakian argitaratu zen (97/07/28). Abel-esplotazioen ingurugiroaren gaineko eragina ttikitu, aurrikusi eta zuzentzera bideratu inbertsioak lagunduko dira. Muga egunik ez da ageri.

#### Putreek azindari sortutako kalte-galeren ordainketa.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 71. zenbakian argitaratu zen (97/06/18). Epea: Eraso gertatu eta 15 egunetara gehienez ere.

#### Herri basoetan bazkalekuak sortu eta hobetzeko laguntzak.

Norentzat: Nafarroako Entitateentzat. Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 20. zenbakian argitaratu zen (98/01/16). Epea: 1998ko apirila.

#### Zenbait nekazal Aseguruen kontratazio kostuari aurre egiteko subentzioak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 9. zenbakian argitaratu zen (98/01/21). Epea: Aseguruan izena emateko epea bukatu eta 30 egunetara.



### KULTURA

#### Literatur lan berri baten sorkuntza eta argitara ematea narrazio modalitatean.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 22. zenbakian argitaratu zen (98/02/20). Epea: Ekainaren 30a.

#### Nafarroako arte eta kultur-entitateen ekipamendua hobetzeko laguntza, egiten duten lan artistiko eta kulturala zernahi izanda ere.

Norentzat: Eskara aurkezteko egunean legez osatuak diren entitateentzat. Zerga-egoitza

Nafarroan izan eta 1997an laguntza hauek jaso ez zituztenentzat. Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 28. zenbakian argitaratu zen (98/03/06). Epea: Apirilaren 15a.

#### 1998an egiten diren talde artistikoen bira eta elkartruke kulturaletarako dirulaguntzak.

zak, hizkuntzaren erabiltzea komunikabideen aldetik, informazio eta dokumentazio sareak eta mintegiak. Muga eguna: 1998ko apirilaren 1a, irailaren 15ean hasten diren proiektuendako.

#### Eskualdeetako hizkuntza eta kultur minoritarioendako.

Norentzat: Eskara aurkezteko egunean legez osatuak diren entitateentzat. Zerga-egoitza Nafarroan dutenentzat. Muga eguna: 1998ko ekainaren 1a.

#### Arlo desberdinetan (arte plastiko eta bisualak, arte eszenikoak eta musika), Nafarroako gazteen ikasketak artistikoen zabaltzeko bultzatzeko.

Non: Bertako edo atzerriko zentruetan, zeinetako irakaskuntza mailak konbokatoria honek lortu nahi duen helburua lortzen duen. Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 28. zenbakian argitaratu zen (97/03/06). Norentzat: Nafarrentzat, edo 1998ko urtarrilaren 1a baino lehen Nafarroan bizi direnentzat. Muga eguna: Ekainaren 30a.




### INGURUGIROA

#### Basa-fauna zinegetikoak ibilgailu automobiliere eragindako kalteei laguntza ekonomikoak.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 72. zenbakian argitaratu zen (97/06/16). Muga eguna: Kalteak sortu eta 3 hilabetetara.

\*\*\* Dirulaguntza hauen edo bertzelakoen gaineko informazio gehiago eskatzeko NIREAra deitu.

## AZKEN ORRIALDEKOAK

**Gazte eta helduak dira euskara gutien darabiltenak Baztanen**

Baztan Balleko Udaleko Euskara Zerbitzuak Baztango 10 herritan egindako neurketen arabera, haur eta adinduek dira euskaraz gehien mintzatzen direnak, hau da, «populazioaren talde marjinalak: ez dira produktiboak, ez dute aginterik eta ez dira gehiengoak». Gazte eta helduen erdararako joera da, horrexegatik, eskema honen ondorioz kezkagarriena, euskararen marjinalizazioa adierazten baitu.

**Sobera ugaltzeko arriskua**

Gaur egun Nafarroan dauden Haize Parkeez gain, berte 30 gehiago egiteko proiektuak onartu dituzte. Horren aitzinean ANAT-LANE talde ekologista kexu agertu da, «Belate, Andia eta Aitzkibel bezalako gune babes-tuetan egin asmo diren parkeak ez baimentzea» eskatu du, eta Haize Energiaren Produktiorako Azpiegitura Planaren kontra zenbait alegazio jarri dituzte.

**“Euskara Nafarroan” web orria**

Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusiak web orri hau jarri du sarean, Nafarroan gure hizkuntzak bizi duen egoera lau hizkuntza desberdinetan aurkezteko asmoz.

Historian zehar euskarak izan duen bilakaera, gaur egungo erabilera eta joerak, izaera legala eta bertze hainbertze datu bildu dira bertan. “Euskara Nafarroan” orria ailegatzeko, Nafarroako Gobernuaren orri nagusira jo eta “euskerak” jartzen duen tokian ziztatu. Orriaren helbidea: “www.cjnavarra.es/euskera”.

# «Udan herrira etortzen diren turistekin ibilbide tikiak egiteko gidariak paratzen ahal dituk»

**Zer ikasi zenuten Zerainera egindako bidaietan?**

Batez ere euren pentsatzeko manera eta planteamenduak ziren harrigarriak guretzako. Eurek hasi ziren herriko ondarea zabaldu eta berreskuratzen baserri-zaberreri, dena katalogatu eta erakusketak egin zuten gero. Ohartu ziren 15 egunez 13.000 lagun etorri zirela, eta herriko ondareak probaxten ahal zirela turismoari begira. Beraien filosofia Iakoba Errekondok laburbildu zuen Etxalarren Abendu Kulturalaren barnean emandako hitzaldian: “turistei kendu behar zaie ahalik eta diru gehien”. Gaur egun, bertze gauzen artean, mehategiak moldatzen ari dituk, galerietako bideak berri eta turistek bagonetan sartuta barrenetik ikus ditzaten.

**Etxalarren gisa horretako ondarerik bada?**

Etxalarren badituk ola zaharrak, Etxalarko bentan, sasi tartean. Lehenbiziko egin beharko zena sasiak garbitu eta etxeak pixkot moldatu. Gero bertze zerbait aipatu zena, Infernuko errota konpontzea zen. Etxalar eta Lekarozko mugan zegoak. Erreka gainean eraikitako errota bat duk, baina orain desagertua duk, eroria. Hau kasu berezia duk, bertze erroretan ura desbideratu egiten baituk kanale batetik.

**Eta sareen aferarekin zer?** Sareen museo edo erakusketak egingo dituk; gero ibilbide tikiak egitea ere aipatu zen, Etxalarrera

**Patxiku IRISARRI**

Etxalarko ALTXATA elkartekoa.

OTSAILAN GIPUZKOAKO ZERAIN HERRIRA ATERALDIA EGIN ZUTEN ETXALARKO 18 LAGUNEK, HORIEN ARTEAN PATXIKUK. 240 BIZTANLE ESKAS DITUEN HERRIXKA HARTAN TURISMOARI ATERATZEN DIOTEN ETEKINAZ GUTIZ HARRITURIK ITZULI ZIREN DENAK, ETA IDEA FRANKO BURUTAN ZUTELA, GAINERA.

*Zaila ikusten diat  
Etxalarren horrelako  
zerbait aitzinera  
ateratzea, ez dagoelako  
Zerainen bezalako  
elkartasunik*



etortzen direnek eskatzen omen dute aunitz. Udan bi hilabetez gidari batzuk paratzen ahal dituk turistentzat. Kontua duk zeinek bultzatu horrelako ekimenak, Udalak, Altxatak edo ostatu eta etxe-ruralek. Denak ari dituk hor solasean baino ezta inor ere horretan serio jarri. Ez da aski Zerainera joatea, hango hitzak han gelditu baitziren. Hor behar duk motor bat, motorra izan ezker ber-

tzeak joanen dituk errestan-errestan.

**Altxatak ez luke konpromezu hori hartuko?**

Altxata kultura zaintzeko sortua duk, eta alde hortatik ondarea berreskuratzea hortan aritzea duk. Hortik aitzinera, ordea, Altxatak lana egitea gidari batzuk paratzeko eta gero bertze batzuk hori probextea...

Nere ustez turismotik bizi direnak badute hor zer errana. Kontua duk gidariena antolatzea, hori norbaitek egin behar dik eta orain arte ez duk serio hartu asuntua.

**Udarako zerbait aitzintzea posible ikusten da?**

Nik enbidea bota niken, katalogoa pixkot prestatzen joateko, baina ez da somatzen mogimentarik... Zaila ikusten diat Etxalarren horrelako zerbait aitzinera ateratzea, ez dagoelako Zerainen bezalako elkartasunik.

**Landa Lurraldeari buruzko aldizkaria**

**Argitaratzailea:** Lurra Kultur Elkarte • Herriko Etxeko Plaza, 1

• 31780 BERA Ale honetan parte hartu dute: EHNE Nafarroako teknikoek, Jesus Garitzelaiak, Juinas Paulek, Asier Gogorzak eta beste zenbaitzuk. **Maketazioa eta Banaketa:** ttipi-ttapa **Inprenta:**

Gertu Tirada: 6.800



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du


**BERTIZARANA**
**Hainbat alegazio  
aurkeztuko dizkio  
Lakoizketako nagusiak  
errepede trazatu berriari**

Lurren neurketan akatsak salatu ditu

AITOR AROZENA

Zozaia-Doneztebe errepede berriarekin ez daude konforme NARBARTeko Lakoizketa baserriko bizilagunak eta hainbat alegazio aurkezteko asmoa dute. Alde batetik, proiektuari berari Legasako zuzena gehiago probaxten duen alternatiba osoa aurkeztuko diote. Baina, horrekin batera, lur-eremuen neurketak egin dituen *VS Ingenieria y Urbanismo, S.L.* enpresari ere bere arrenkura azaldu diote. Izan ere, prentsan agertutakoaren arabera, Lakoizketako 7.500 m<sup>2</sup> bertzerik ez lirakeke hartuko lan hauek egiteko eta Jesus M<sup>o</sup> Argain nagusiaren erranetan 23.672 m<sup>2</sup> dira. «*Beraien neurketaren arabera 1.459 metro dituen belagiak 15.070 metro ditu berez, eta hori enpresak berak onartu digu, ordenagailuan begiratu. Alegaziotan aurkezten ahal dugula erran digute, mesedea eginen baligute bezala*».

Gainera, Argainenak diren bertze 2.500 metro Kataluniako ezezagun baten izenean paratu dute. «*Hau dena nahi gabe egin bada aski larria da, neurketak axolarik gabe egin dutela erakusten baitu, ez dute kontu haundirik paratu. Eta nahita egin badute, zer erranik ez*».

Beraz, «*gustoz ez bada ere*», Lakoizketa da errepede berriak gehien kaltetuko duena.


**URTE  
HONETARAKO,  
ERRAZENA**
**A h o l k u l a r i a k E r r e n t a n**
**EROSOTASUNA  
XALOTASUNA  
AZKARTASUNA  
ESPERIENTZIA**

**RURAL KUTXA**

**GOIZUETA-ARANO**

# Garaikur eta kopaz bete ziren bi herriak apirilaren 5ean

Nafarroako Haur Kantu txapelketan eta bertsolari txapelketan

ESTEBAN AROZENA

Harrigarria badirudi ere euskal kulturaren barreneko Nafarroako bi txapelketa garrantzitsu egun berean ospatu ziren, apirilaren 5ean hain zuzen: goizean Iruñean haur kantariena eta arratsaldean, Elizondon, bertsolariena.

Gaiarre antzokian burutu zenarekin hasiz esan Goizuetako eskolako hiru ordezkari zeudela 20 finalisten zerrendan: Alaitz Azurmendi, Alaitz Eskudero, Itsaso Lujanbio, Izaro Goikoetxea, Naiara Arozena, Maider Ansa, Itziar Lujanbio, Zuriñe Lujanbio eta Marijoxe Mitxelenaren Haizea taldea; Maider Ansa eta Naiara Arozenak osatu-



Haizea taldea hainbat sari eskuratu ondotik

Argazkia: Pili Z.

tako bikotea eta Maider Ansa bera bakarlari moduan.

Juradoak bere epaia eman zuen eta Goizueta eta Aranoko nesken ize-nak behin eta berriz ateratzen ziren Amaia Zu-

biria bozeramailearen ahotik: taldeen artean Haizea txapeldun; bikotetan Maider eta Naiara txapeldun eta bakarlarrietan Maider txapeldun. Honetaz gain, juradoak eman beharreko

lau sari berezietatik hiru (ahotsen armonia, nortasun artistikoa...) Goizuetako eskolakoek jaso zituzten. Goizean Maiderrek egindakoa gutxi izan balitz bezala, arratsaldean Elizon-

don ospatu zen Nafarroako bertsolari txapelketan beste poz bat eman zien aranoarrei Xabier Legarretak, meritu haundiko bigarren postua eskuratuz, saio ederra egin eta gero.

**flash**

- ❖ **Idazkari berria**  
Azken urte hauetan gure bi udalerrietako idazkaria izan den Idoia Baraibarrek Tolosako Udaletxean eginen du lan hau hementik aurrera. Axun Ariztegi lasartarrak betetzen du lanpostua hilaren 14az geroztik.
- ❖ **Alemaniano Oihan Beltzean**  
barrena egindako bidaiaren berri emanen du diapositiba bidez Ander Olaizolak, larunbat honetan, hilak 25, arratsaldeko 8etan hasita eskolako komedorean burutuko den ekitaldian.

**ARESO**

# Elutsar ingurua oihanberritzeko dirulaguntza eskatu du Udalak

Plazaolako Kontsorzioan sartzea erabaki da

JUANA M<sup>a</sup> SAIZAR

Aresoko Udalak dirulaguntza eskatu dio Nafarroako Gobernuari, mendiak oihanberritzeko kanpainaren barnean. Elutsar mendian inguruan 1,8 Hektarea pinu eta izei (abeto) sartuko dira eta itxitura ere egin-

go da. Lan hauen aurrekontua 1.130.000 pezetakoa da.


**Telefono kabina jartzeko tramiteak**

Bertako etxekoan-drea hil eta gero, Apezeneako telefonoa publikoaitxi denez, Udala herrian kabina bat jar-

tzeko asmoa du. Horretarako tramiteak egiten ari da Telefonica enpresarekin.

**Plazaolako Kontsorzioa**

Udalak azken batzarraren onartu zuen Plazaolako Turismo Kontsorzioan sartzea.



**Emitza onak eskuratzen ari da herriko pilota eskola**

Aurreko urteetan bezala pilota eskola martxan jarri da eta oso emitza onak lortzen ari dira Aresoko pilotari gaztetxoak.

Artxibokoa



# Joantxenea baserriko ikuilua sute batek kixkali zuen


Haren ondorioz, Juan Bautista Alduntzin larriki zauritua gelditu zen

JOSEBA AZPIROZ

Apirilaren 7ko goizaldeko 2ak aldera, Joantxenea baserriko ikuiluan sutea gertatu zen. Haren ondorioz, bertan zeuden 28 behi eta 3 zekor hil ziren (ikuiluan zeuden guztiak) eta bi traktore ere kixkali ziren. Gainera, Juan Bautista konturatu eta ikuiluko atea ireki zuenean etorri zitzaion galdak erredurak eragin zizkion. Hala ere, kotxea hartu eta suhiltzaileei abisatzera joan zen herrira. Ondoren Iruñera eraman zuten eta handik, zituen zaurien larritasuna zela eta, Bilboko Cruces erietxera. Zazpi laguneko familia bizi da baserri honetan. Aiton-amonak, Juan Bautista eta Lourdes senar-emazteak, beren bi seme-alabak eta Juan Bautistaren anaia.

Gertatutako ezbeharrak kontuan hartuz eta familia honen aldeko elkartasuna adieraz nahian Leitzaiko kutxa eta banketxe guztietan kontu korranteak ireki dira, aportazioak jasotzeko. Ostegun Santuko elizkizunetan bildutako dirua ere famili honi emanen zaio.

Bestalde, zenbait ekitaldi prestatzen ari dira. Oraindik zehaztekoa



Joantxeneako ikuiluak itxura penagarri hau zuen sutearen ondorioz

Argazkia: Egin

badago ere, aurreratu dezakegu hilaren 30ean, iluntzean, pilota partiduak izanen direla. Aspe enpresako pilotariak binakako partidua jokatuko dute lehenik, ondoren Olaizola-Goñi partidua jokatuko da eta bukatzeko herriko pilotariak ariko dira. Aurrerago herri kirol jaialdia, bertso eta kanta jaialdia eta beste zenbait ekitaldi antolatuko dira. Nahiz udaletik, nahiz elkartasuna bideratzeko osatu den taldetik denon aportazioak eta parte hartzea eskatzen dizkigute.

## Liburuaren Eguna dela eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte

Liburutegiko arduradunak, Kultur Taldeak eta Leitzaiko Institutuak zenbait ekitaldi prestatu dituzte Liburuaren Eguna dela eta. Aurretik, institutuko ikasleen artean Hegoamerikara bidaltzeko liburu bilketa egingen da. Bilketa herritar guztiei zabaldua dago eta liburuak, gaztelaraz idatzitako eleberriak behar dute izan.

Apirilaren 23an,

Mugarik Gabe erakundeko partaideek hitzaldiak eskainiko dizkigute zineman, gai horretaz. Institutuan berriz, Jon Arretxe idazlea izanen dute. Arratsaldeko 5etan, bost eta zazpi urte arteko haurrentzat, ipuin kontalari bat ariko da liburutegian. Arratsaldeko 7etan berriz, Patziku Perurenak *'Leitzaiko errege erreginak'* liburuaz hitz egingen du.

## flash

❖ **Plazako eskuz binakako pilota** txapelketan parte hartu nahi baduzu, maiatzaren 1a baino lehen izena eman behar duzu Plaza auto-eskolan. Bikote bakoitzak 2.000pta ordaindu beharko ditu. Partiduak larunbat arratsalde jokatuko dira eta txapelketa maiatzaren 9an, arratsaldeko 3etan hasiko da.

❖ **Kontzertua maiatzaren 2an** Maiatzaren 2an, gaueko 10.30etan, *'Hemendik A'*, *'Etsaiak'*, *'Ktulu'* eta *'Berri Txarrak'* taldeen kontzertua izanen da, pilotalekuan.

❖ **Su-egur lotea** eskatzeko epea maiatzaren 15aren eguerdiko ordu bata artekoa da. Gaitz egurra eskatzen dutenak ere, epe bera dute.

❖ **Haurtzaindegia** Haurtzaindegirako haurren izena emateko epea maiatzaren 4tik ekainaren 12ra izanen da. Urtero bezala, ikasurtea irailen hasiko da eta aurren, 7.000 pta ordaindu beharko dira hilero. Datuok eman beharko dira: haurraren datuak, gurasoen izen-abizenak eta hilabete ko kuota kobratzeko kontu zenbakia. Irailean hasi behar duten haurrek 18 hilabete beteak beharko dituzte eta gazteagoak direnak hiltzean hasiko dira, baldin eta 18 hilabete badituzte. Aurren 3 urte beteko dutenek ezin dute haurtzaindegian hasi.

## LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735 • IRUN © 943622305



## Elizatz

ERLOJUTEGI  
BITXITEGIA

*Nafarrentzat  
prezio bereziak*

Landetxe Enparantza © 943.492698 OIARTZUN

# 'Hamabi ordu eskuaraz' maiatzaren 1ean egingen da

Pintura erakusketa zabalik da Arizkunenean

TTIPI-TTAPA

'12 ordu eskuaraz Baztanen' izenburupean, Baztango dantzari taldeak antolatutako eguna ospatuko da. Kultur iharduera honen bidez Baztanen euskararen erabilera sustatu eta garatu nahi dute, euskararen egoera kaxkarra hobetuz.

Ekitaldiaren aurre-erapen gisara, Baztango dantzariak margo erakusketa zabaldu zuten apirilaren 8an Arizkunenean. Jose Mari Apeztexea, Ana Mari Marin, Mayu Ziaurritz, Tomas Sobrino, Kepa Arizmendi eta Xabier Soubelet margolari baztandarren lanak daude ikusgai, arratsaldeko 7etatik 9etara. Aldi berean, kontrabandoari buruzko narrazio labur lehiaketa antolatu da 12-16 urteko gazteei zuzendua, Kanboko Xalbador ikastetxea eta Lekarozko institutuaren laguntzaz.

## 1930. URTEKO EZTEIA ANTZESTUKO DA

Maiatzaren Ieko ekitaldiei dagokienez, Baztango herri guzietan ibiliko diren argi soinuaren ondotik, 'Muga gainetik' izeneko antzespinari hasmenta emanen zaio Elizondoko plazan. 1930. urteko ezteia antzestuko da. «Elizondoko Arizkuneneako Bittori, Baigorriko Etxauz gazteluko Erramunekin ezkontzen zaigu. Bi balleetako jen-



## UAGN sindikatuak bulegoa zabaldu du Elizondon

Apirilaren 7an zabaldu zen Elizondoko Santiago karrrikako 30. zenbakian UAGN nekazarien sindikatuko bulego berria. Momentuz astearte goizetan, 10etatik 1etara egonen da zabalik, baina Angel Eraul lehendakariak eta Ainitze bulegoaren arduradunak erran zutenenez, «inguruko nekazarien beharraren arabera ordutegia zabalduko da edota egun gehiagotan irekiko da». Bulegoaren telefono zenbakia hau da: 948580627 Arg.: Aitor

de parrasta bat bilduko da ospakizun honen inguruan» antolatzaileek diotenez. Eztei hunekin batera zonaldean bizimodu bat zena eza-gutzera eman nahi dute: kontrabandoa. Goizeko parteari akabaila emanez, plazan mutil-dantza eta sokadantza dantzatuko dira. Ondotik, zikiro-jatea izanen da Merkatu zelaian, eztei-bazkaria, hain xuxen. Bazkal ondotik dantza emanaldia Elizondoko pilota plazan. 300 emakume bilduko dira, urtean ikastarotan egindako lana plazartzeko prest.

Egun guzian musika parrasta bat izanen da: txarangak, txistulariak, gaiteroak, akordeoiak, trikitixak...

Egun honi segida

emanez, ekainean Kirolak 12 orduz egiteko asmoa dute, herriko kirol taldeekin Elizon-

doko frontoian: esku-baloia, futbitoia, pilota, patinaia, sokatira, aerobic, etab...



## Kultur jardunaldiak egin ditu Baztan ikastolak

Aste Saindu aurreko astean Baztan Ikastolak kultur jardunaldiak egin ditu, Aisialdia gaia landuz, hainbat ekitaldiren bidez: filmak eta diapositibak ikusi, igerian ibili, Txiki Park bisitatu Donostian, txalaparta ikastaroa, mendirindula martxa, partxis eta xake txapelketak, bertzeak bertze.

## flash

**Elizondoko Santiago bestak** iragartzeko kartel lehiaketa zabaldu da. Lehiaketa herritarrei zabaldua izanen da eta irabazleak zikiro-jaterako hiru sarrera eskuratuko ditu. Kartela Din A-4 neurrian aurkeztu behar da eta lelo hau eramanen du: *Santiagoak, 98. Elizondoko bestak, uztailearen 24tik 28ra*. Lanak maiatzaren 10a baino lehen aurkeztu behar dira, ohiko sistema erabiliz, helbide honetan: *Elizondoko Alkatetza, Herriko Etxea, Jaime Urrutia 6, Elizondo*. Bertzenaz, alkateari edo kargodun bati eman.

## Udaberriko Ferie

ospatu zen gan den ortziralean. Artisaunen erakusketa eta etxeko janarien salerosketa egin ziren. Ferian aurkeztutako ahari onenari saria eman zitzaion.



**Zahar-Etxeko karta txapelketak jokatu dira**

Martxoan jokatu dira Zahar-Etxeko mus, briska eta seikoen txapelketak. Musean, Josepi Etxenike eta Pierre Santesteban suertatu ziren garaile, finalean Jesus Huarte eta Angel Sarasolari irabazi ondotik, Jose Antonio Gonzalez-Perfecto eta Juan Cruz Ibarra-Jose Antonio Bayones izan ziren 3. eta 4.. Seikoen txapelketan Begoña Satrustegi Ahizpa eta M<sup>a</sup> Camino Aranburu izan ziren txapeldunak. Txapeldunorde, berriz, Fermin Petrikorena eta Salvadora Arregi. Briska txapelketan, azkenik, Matilde Valenzuela eta Pilar Bizkai gailendu ziren, Florencio Olabe eta Begoña Satrustegi Ahizpari irabazi eta gero. Arg.Zaldúa

**flash**

**Lekarozko UBiko ikasbidaia**ren zozketan, zenbaki hauek suertatu dira sarituak:

1. saria (afaria Elgorriagako Hilarion jabetxean edo 10.000 pezeta), 05940 zkia.
2. saria (bildots bat), 04390 zkia. Txartelen jabeek maiatzaren 20a baino lehen deitu behar dute 948450205ra, sariak eskuratzeko.

**Udaberri Kulturalako ekitaldiak**

Elizondoko Herriak antolatutako Udaberri Kulturalarekin segituz, ortzirak honetan, apirilak 24, arratseko 8etatik aitzinera *Gazteak kantari* kontzertua eskainiko du Bortzirietako Abesbatza Gazteak Kasinoan. Larunbatean, apirilak 25, ordu eta leku berean, omenaldia eskainiko zaio Federico Garcia Lorcarri, Jesus Rodriguez eta Javier Sistiagaren olerkien eta Karmele Iriarteren abestien bidez. Apirilaren 30ean, ortzeguna, besta kantua eskainiko ditu Donostiako Gaztelubide elkarteak.

**Ez da marihuanarik landatuko Balleko herri lurretan**

Batzar Orokorrak ez zuen Maria Taldearen eskaria onartu

**TTIPI-TTAPA**

Baztango Balleko herri lurretan marihuana landatzeko baimena eskatuz Maria Taldeak egindako eskaria ez zuen onartu Batzar Orokorrak, Pazko Astelehenean egindako bilkuran.

HBko Sotero Etxandi Etxandik bakarrik

eman zuen eskariaren aldeko boza. Almandozko alkateak ez zuen boturik eman eta gainerako 23 batzar kideek aurkakoa eman zuten.

**«HAINBAT KULTURETAN ONARTUA»**

Gai honi buruz solas egin zuen bakarra

Sotero Etxandi bera izan zen. Bere ustez batzarrek ez luke arazorik izan beharko eskaria onartzeko, «hainbat kulturetan kalamua onartua dagoelako eta norbere kontsumorako landatzea ez delako zigortu hainbat epaiketan». HBko zinegotziaren ustez, Euskal He-

rrian egiazko arazoak diseinu drogek sortzen dituzte eta «trafikanteak atxilotzeko, polizia eta gardiazibilak ez du ja egiten». Era honetan, Galindo generalaren izena gogorazi ondotik, Sotero Etxandik drogen trafikoari aurre egiteko deia luzatu zien «gizarte sektore guziei».

**Pierresenea**  
**OSTATU - JATETXEA**  
*Jaki Tipikoak • Etxeko Gira*  
 Iturriotz Auzoa • © 592043 • **ORNOZ-MUGAIRI**

**OPS Ingenieros S.L.**  
 • **Topografi lanak:** Lur neurketak, balorazioak.  
 • **Nekazal proiektuak:** Bideak, ur deposituak, etxebizitzak, granjak, nabeak...  
**Barañain Etorb.2 • IRUÑA • Tel: 267453-267602**

Okindegia Jatetxea

**Uxoá**

Polig. Ind. Ordoki Tfn.: (948) 45 34 03 31713 ABIZKUN

☛ **Okindegian**  
 • Ogi artisaua, egunekoa eta txapata

☛ **Jatetxean**  
 • Menua eta karta (asteburuetan)  
 • Espezialitate parrilan erretako jakietan

*Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labeen erre. Goxo-goxoa!*

SENPERE

# 15garren Herri Urrats ospatuko da aintziran maiatzaren 10ean

Oxtikenean erakusketa eta mintzaldia egingen dira

FRANCK DOLOSOR

Eskuara ofiziala izateko eta ikastolak altxatzeko, eltzegorra joko dute Seaskako ikastolek, aurtengo leloa 'Eltzegorra joz' baita. Diru sustengua eta moralardietsi nahi da euskaldunak besta giroan bilduz. Aurtengo kantua, 'Eltzegorra joz' Maixa eta Ixiar taldeak eskaintzen du. Diskan azken 14 urteetako Herri Urratseko kantuak ere ageri dire. Bilduko den dirua baliatuko da Seaska eta ikastolak laguntzeko. Batzuek halere laguntza haundiagoa ukanen dute, behar inportantegoak baitituzte. Kanboko ikastegiak bezala. 300 ikaslekin txikiegia gelditzen da eta handitze lanak aski fite hasiko dire.

Herri Urratseri buruzko erakusketa zabalduko da Oxtikenean, maiatzaren 7tik 9ra. Maiatzaren 9an, arratsaldeko 6etan euskararen geroari buruzko mintzaldia izanen da Gazteriak, EHE eta Deiadareko kideekin.



## Flandiarrak bisitan izan ditugu apiril hastapenean

Euskal Herriko zazpi probintziak ikusi eta gero, Flandriatik etorritako taldeak azken bazkaria Oxtikenean ospatu dute, giro ezin hobean. Denak kontent atera dira Euskal Herriitik. Hemendik milesker diruz laguntzen gaituztelako Oxtikenea berritzeko edo ikastolak sortzeko.

### Mattin-i omenaldia Arbonan

Heldu den udan, urtea egingen du Mattin zendu dela. Horren kari besta berezia antolatzeari deliberratu dute Baionako Gure Irratiak eta Arbonako Gau Eskolak maiatzaren leian Arbonan. Programaren hau da:

11,30etan Mattini agurra. 12etan pilota

partida plazan. 12,30etan zikiroa Arantzolan. 4,30etan Mattini omenaldia. 6etan elizan kantaldia: Xabier Lete, Peio eta Pantxoia, Pier Paul

Berzaitz. 10etan kontzertu-dantzaldia Aistrikoa eta Etengabe taldeekin. Xehetasunak ukaiteko deitu Gure Irratira (0559593001).

flash

### Seaskako ikasle ohien bazkaria

Kanboko Xalbador ikastegian iragan da apirilaren 5ean, igandearrekin. Ikastolatik pasatu diren laurogei bat gazte bildu dire eta, denbora berean, elkarte berri bat sortu dute: Seaskako ikasle ohien taldea. Senpereko ikastolan noizbait ikasle izan direneri idekia izanen zaio elkarte berria.

### Deiadar

bi hilabeteko kanpaina apirilaren 4an bururatu da Baionako karrketan izan den manifestaldiarekin. 3.000 euskaldun baino gehiago bildu dire gure mintzairaren ofizialtasuna galdetzeko. Besta ikaragarri eta biziki ederren ospatu da. Eskertzen ditugu adiskide batzuek gurekin ibili direlako: Okzitania, Bretaña, Ipar Irlanda, Katalunia eta Alsaziatik etorri dire lagun batzuk.

## DUHAU-ARANA Kinkaileria

Karrika Nagusia • SENPERE  
© 0559541044

Pierre  
**GONI**  
Baratzea  
SENPERE • © 0559541303

Kutxa Kutxa Kutxa K  
txa Kutxa Kutxa Kutx

**Kidetza berri bat!**  
Kutxa  
7, Portuko Karrika-64700 Hendaia  
Tel. 0559203274 Fax 0559203237

ALFA LAVAL  
Kontzesionarioa  
Hazkuntzarako tresneri guziak  
**S.A.R.L. SABALOUÉ**  
64310 SENPERE  
Tel. 0559542766  
Fax 0559542951

LARRALDEA

SAGARDOTEGIA  
Asleartetik ortzira: Belatik aitzinerat  
Larunbata eta besta egunetan zabalik  
© 45 21 21 • LEKAROZ

# AEKren ardurapean Deiadar kolektiboaren kanpainakari ainitz ekitaldi egin da herrian

Apirilaren 4an Baionan amaitu da elgarretaratze haundi batekin

MIXEL ETA JACQUELINE

Azken alean ahantzi ginuen Deiadar kanpainan AEKren ardurapean gauzatu dela. Beraz, hemen doa aipamena.

## Paleta lehiaketa

Pleka trinketeko paleta lehiaketa apirilaren 4an amaitu zen. 86 bikote aritu ondoan eta hori lau mailetan banaturik, huna hemen finalen ondorioak:

**Goi maila:** Suzanne-Teillery (Sokoa), 50; Ladebat-Terrer (Urruña), 32.

**Artekoa (A):** Muzica-Iceaga (Amoz), 50; Lafitte-Laurencena (Senpere), 35.

**Artekoa (Saratarren artean):** Mikael Vella-Henri Dutournier, 50; Panpi Barreneche-Jean Michel Ithurbide, 49.

**Beherekoa:** Garbiso-Dattas (Sara), 50;



Lekuona, Garbiso, Dattas eta Aprestistegi, behereko mailako finalistak

Lekuona-Aprestistegi (Biriatu), 49.

Sariak banatu eta 120 bat pilotazale bildu ziren zikiro jate baten inguruan. Orain, esku huskako lehiaketa hasi berria da, Xoko deitzen den gunean, 80 jokolarien parte hartzearekin.

## Aste Saindu euritsua

Euri erauntsi, barazua, haize eta elurra mendietan. Aste Saindu hunc negu gorri itxura zeukan. Hala ere jende ugari ibili zen hemen gairi, batez ere Hegoaldekoak. Aipamen be-

rezia merezi du 5 egun igaro dituen Berangoko *S.Otxandategi* dantza taldeak. Bazko Astelehenez Bizkai aldera itzuli da, baina berriz etortzeko gogoarekin. Aldi huntan nahi luke dantza ikusgarri bat eskaini eta Zazpiak Bat

dantza taldearekin konpontzeko xedea dute.

## Euskal Idazleen Biltzarra

Nahiz eguraldi kas-karra izan, biltzarra arras modu onean iragan da eta jaz baino ainitz jende gehiago ibili da, denen atseginerako.

## Rock gaua apirilaren 30ean

Ohiko rock gaua apirilaren 30ean iragaitekoa da eta Olhain ikastolak eta gaztetxeak antolatzen dute. *Anestesia*, *Skalariak* eta *Kukumiku* taldeak ariko dira.

## Lanak berriz zalantzan

Martxoan hasi beharrik ziren obrak luzatuak izan dira eta oraino zorbait hilabetez, bederen uda iragan arte, plazak oraiko itxura atxikiko du.

## La Asturiana

ostatu • jatetxea

Tfnoa: 58 04 63

Santiago 51, ELIZONDO

## HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin  
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19 • SARA



ARROPA DENDA



**Gazteendako era guzietako arropa**

**Lanerako arropa**



## BAZTAN

ALTZARIAK  
zurgindegia

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

121 errepede nazionala, 54. km • Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

## IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

## UDABERRIKO ARROPA

Trajeak, konjuntxoak, kamisetak,  
galtzak, jertseak...

## KONPLEMENTOAK

Painueloak, gerrikoak, bitxikeriak...

**ESKULANETARAKO MATERIALA**

## EZKONTZAK

Jose Manuel Iguñiz Zalakain eta Edurne Mutuberría Huizi, Andoain eta Goizuetakoa, apirilaren 4an.

Francisco Diaz Cárdenas eta M<sup>a</sup> Paz Aizpurua Jaimerena, Iruña eta Gartaingoa, apirilaren 8an.

Jon Urrutia Zorrozueta eta Gurutze Telletxea Ordoki, Bilbo eta Lesakakoa, apirilaren 4an.

Pedro M<sup>a</sup> Cuesta Garmendia eta Josebe Arbelaiz Sein, Lezo eta Irungoa, Lesakako San Antonen, apirilaren 4an.

Eric Caruso eta Christelle Bal, Sarakoak, apirilaren 4an.

Jose M<sup>a</sup> Zelaieta Martikorena eta M<sup>a</sup> Concepcion Lazkano Mitxelena, Berakoak, apirilaren 4an.

## JAIOTZAK

Ander Jaurena Petrirena, Elizondokoa, martxoaren 30ean.

Julen Agirre Ursuegi, Zigakoa, apirilaren 1ean.

Asier Etxeberria Alonso, Doneztebekoa, apirilaren 6an.

Unai Zabala Bergara, Leitzakoa, martxoaren 29an.

Amaia Ezkurdia Lasarte, Leitzakoa, martxoaren 26an.

Harri Maritorea Tapia, Berakoa, martxoaren 28an.

Unai Etxebeste Irazoki, Berakoa, apirilaren 7an.

## HERIOTZAK

Francisco Larralde Barazabal, Arizkungoa, martxoaren 27an, 65 urte.

Anunciacion Muniain Zoko, Elizondon, apirilaren 2an, 87 urte.

M<sup>a</sup> Asuncion Argüelles Arburu, Elizondon, apirilaren 4an, 92 urte.

Maria Casas Hernandez, Erratzukoa, apirilaren 11n, 97 urte.

Fermina Caballero Zabaleta, Leitzakoa, apirilaren 3an, 89 urte.

Eugenia Zestau Arribillaga, Leitzakoa, apirilaren 1ean, 85 urte.

Luixa Errandonea Elizagoien, Sarakoa, apirilaren 8an, 94 urte.

Felisa Maritorea Mitxelena, Berakoa, apirilaren 11n, 71 urte.

Angel Aranibar Diaz, Berakoa, apirilaren 7an, 87 urte.

### ZORIONAK!

Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu



Haurtoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbiketarako produktuez betea, emango dizugu.

Ez ahantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO  KUTXA **125**

**ttipi-ttapa internet**

**helbide berriak**  Internet: [jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa](http://jalgi.com/topagunea/ttipi-ttapa)  
E-mail: [ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com](mailto:ttipi-ttapa@topagunea.jalgi.com)

**AMEZTI, S.A.L.**

**KALITATEA eta ESPERIENTZIA**

- Marmol eta granitoak
- Sukalde eta bainurako entzimerak
- Lanak orokorrean

**Hileta artea**

Zaldubia Poligonoa • IRURITA • Tel. eta faxa: 45 22 00



### Angel ARANIBAR DIAZ

1998ko apirilaren 7an hil zen Beran, 87 urte zituela

Hain momentu minberetan, laguntasuna eta berotasuna eskeini diguzuen guzietan, eskerrak aunitz.

BERE FAMILIA



Elizondoko finalean taularatu zen zortzikotea. Iñigo Olaetxea kantari.

Argazkia: Joxe LACALLE

## Estitxu Arozenak eskuratu zuen Nafarroako bertsolarien txapela

Xabier Legarreta aranoarra izan zen txapelburua, saio eder baten ondotik

Estitxu Arozena le sakarra suertatu zen txapelburua apirilaren 6an Elizondoko pilota plazan burututako Nafarroako bertsolari txapelketaren 22. edizioaren finalean. Estitxu-arentzat bigarren txapela da hau, 1995. urtean eskuratuakoa den ondotik. Orokorrean saio ederra egin zuen, nahiz eta berak errandakoaren arabera, «hasiera-ko puntuei erantzuten ez asmatu».

Xabier Legarreta aranoarra izan zen txapelburua, eta norbaitentzat ezustea izan badaiten ere, bertso mundua segitzen dutenak ez di- tu ustekabe hartu. Iñigo Olaetxearekin –hau ere ederki aritu zen, 4. postua eskuratu– 8ko txikian egin zuen saioa, Elizondora hurbilduta- ko mila ikusleen gusto- koa izan zen.

Tartean, hirugarren postua Bittor Elizagoienentzat izan zen. Azken agurrean gogo-

ratu zuenez, «txapela buruz aldatzen da, bai- na hirugarren postua beti neretzat da». Izan ere, azken lau urtetan horrelaxe gertatu da.

Jexux Arzallus, Manolo Arozena, Xabier Silveira eta Estitxu Fernandez sailkatu ziren ondoren. Akaso, azpi-

marragarria da Xabier Silveiraren saioa. Iaz- ko txapelburua 7. izan da aurten, baina bi po- to egin zuelako (bat nabarmena, gainera). Ber- tzenaz, saio polita egin zuen eta kartzelako gaian, bereak izan ziren aditutako bertsolari on- nak.

### Puntuazioa

Estitxu Arozena	588
Xabier Legarreta	562
Bittor Elizagoien	560,5
Iñigo Olaetxea	553,5
Jexux Arzallus	549
Manolo Arozena	544
Xabier Silveira	540
Estitxu Fernandez	538

## Mariano, bertze txapelburua

